BARRUAN, ZURE HERRIKO ALDIZKARIA



# DEBAGOIENA: MANKOMUNITATEAK 5.600 MILIOI EUROKO AURREKONTUA PROPOSATU DU DATORREN URTERAKO /4

Goien...a

EGUBAKOITZA • 2002ko abenduaren 20a • III. urtea • 91. zenbakia • ... ZEKO



**Goienka2a**
'Oliver!' musikala gabonetan, Bilboko Euskalduna jauregian

**BERGARA**
Etxez etxeko zerbitzuko langileek protestekin jarraitzen dute /7

**JUAN ZELAIA**
*"Abertzaleon arteko zatiketak kezkatzen nau gehien"* /9



ANDER GILLENEA

## Domekan, Santamasak Arrasaten

Domeka egun handia izango da Arrasaten. Izan ere, Santamas feria dela-eta, ekitaldi mordoa antolatu dituzte, eta, urtero moduan, jende piloa ibiliko da kalean gora eta behera. Jakina, aurten ere Santamasetako erregina txerria izango da: *Txolin* izenekoa, Gesalibargo Elezgarai baserrian hazitakoa eta 280 kilokoa. Zozketa gauerdian egingo dute, plazan.

**ASTEKO GAIA: VASCO NAVARRO TRENAK, 75 URTE**

# Atzoko trena, etorkizuneko tranbia

Vasco Navarro trenak Debagoiena zeharkatu zuen 1967a arte. Hala, haren oroimena berpizteko aukera ematen digu joan den astea ezkero Arrasaten dagoen erakusketa batek. Tren zaharra gogorarazteaz gain, etorkizuneko garraiobideen gaineko gogoeta planteatzen du erakusketak: ibarreko tranbia eta AHT. /2-3

## Lanuzteak eta kale bilkurak egin dituzte Debagoienean, "duintasun nazionalaren alde"

Lanuzteak eta manifestazioak egin zituzten atzo, eguena, ibarreko hainbat herritan. "Euskal Herriaren kontrako erasoak" gaitzesteko, Duintasun Nazionalaren Eguna aldarrikatu nahi izan zuten hainbat taldek. Arrasaten eta Bergaran egin zituzten bilkurak. /4

GELAN
HORMA-ARMAIRUAK



Zabaldu berria!
Kruz Gallastegi 9
BERGARA
943 76 38 10
visel ATEAK banatzaile ofiziala



Erdiko kalea 32
ARRASATE
943 79 16 12
GIZONAK
EMAKUMEAK
LUKO
JANTZIAK
Gabon zoriontsua

**OÑATI**

## Hitzarmena sinatu dute Udalak eta frantziskotarrek

Eguazten eguerdian sinatu zuten lankidetza hitzarmena Oñatiko Udalak eta Arantzazuko frantziskotarren komunitateak, Arantzazuren etorkizuna aztertzeko. Oinarri garrantzitsuenetan ados daude Udala eta frantziskotarrak, eta hainbat ideia dituzte. Orain, kudeaketa modua aztertuko dute. /7

DEBAGOIENA/4-5 • HERRIZ HERRI/7 • IRITZIA/8 • KIROLA/10 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • BERRI-ZAKUA/19 • DENBORA-PASA/21 • TELEBISTA/22

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2002ko abenduaren 20a

# Vasco Navarro tren

## Ibarra lotu zuen trena da erakusketa bateko gaia; etorkizunak ere lekua du erakusketa horretan

LEIRE KORTABARRIA

Vasco Navarro trena 1967an geratu zen bertan behera, baina debagoiendarrok ondo gogoratzen dugu, hemengo bizitza sozial eta ekonomikorako oso garrantzitsua izan zelako: ibarra bere isolamendutik irteteko bidea burdinez eginda egon zen garai hartan. Hala, joan den egubakoitza ezkero, oroimen horiek piztuko dizkigun erakusketa bat dago Arrasateko Monterronen, Vasco Navarroren ibilbide osoa inauguratu zeneko 75. urteurrena dugulako aurten.

**DENBORAN BIDAIATZEKO GONBITA**

Donostia, Gasteiz, Iruñea eta Bilbo elkarrekin lotuko zituen trena egitea zuten amets Herran anaiek, eta ametsa egia bihurtzeari ekin zioten 1879an. Diru gutxirekin egindako ibilbide haiek bezain malkartsua izan zen Vasco Navarroren historia, eta, errentagarria ez zeneko aitzakiarekin, itxi egin zuten.

Erakusketak denboran bidaiatzera gonbidatzen gaitu. Baina ez iraganera bakarrik: erakusketa ibarra tren berri baten geltokian dagoela harrapatzen gaitu: datorren urtean onartuko den Debagoieneko tranbiarena.



AITOR URIZAR

Arrasateko eta Bergarako alkateek adi-adi jarraitu zituzten azalpenak erakusketaren inaugurazioan.

MALKARTSUA

### Trenaren hasierako urte larriak

**Trenaren historia larritasunez josia egon zen. Hasierako enpresak sei urte behar izan zituen Gasteiztik Eskoriatzaraino zerbitzua martxan jartzeko. Lau urte geroago, 1897an, Estatuak bere gain hartu zuen esplotazioa, baina 1910era arte ez zen ezer berririk egin.**

URREZKO URTEAK

### 1938tik, ibarrerako zerbitzu ezin hobea

**1927an hasi zen trenaren urrezko aroa. Laster elektrifikatu zen zerbitzua: Gasteiz-Mekolalde eta Elorregi-Oñati zatiak 1938an elektrifikatu zituzten. Makinista batek dio: "Gipuzkoan berebiziko mugimendua zegoen. Eskoriatzatik beherakoa eromena zen beti, uda nahiz negu".**

ATZOKO TRENA, BIHARKO TRANBIA

### Ibarreko alkateak Vasco Navarro trenaren oinordeko izango den tranbiaren alde daude

**Vasco Navarro trenak erabilitako azpiegitura asko ibarreko tranbia egiteko aprobetxatu ahal izango dira, eta horren alde daude geure alkateak. Badirudi tranbia uste baino lehenago izango dela errealitate, Mankomunitateko presidente Victoriano Gallastegik azaldu zuenez: "2003ko abendurako bukatuta izango da proiektua, eta 2004ko urtarrilean esleituko da. 2004ko abendurako tranbia bukatuta egotea espero dugu". Gallastegik iritzi baikorra azaldu zuen herritarren jarreraren gainean: "Tranbian lasai-lasai joan ahal izango dugu lanera, prentsa irakurtzen, eta autoa hain sarri erabiltzeari utzi ahal izango diogu".**

AZKEN EGUNA

### "Jarraitu izan balu, zoragarria litzateke"

**1967ko San Silvestre Egunean, elurra maramara zela, pasatu zen azkenekoz trena ibarretik, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroako aldundiek gogor egin arren Madrilgo erabakiari. Adituek diotenez, "jarraitu izan balu, oraingo aurrerabideekin, azkarra eta zoragarria izango litzateke".**

ETORKIZUNA

### Vasco Navarrotik, trenbidera eta AHTra

**Bizitzak buelta asko ematen ditu, eta trena ere halaxe bueltatuko da gurera, bi proiekturen itxurapean: alde batetik, tranbia, ibarrerako bakarrik; bestetik, AHT. Vasco Navarrok ibar osoan geltokiak zituen bezala, ordea, AHT, hasierako egitasmoari jarraituz, ez da gurean geldituko.**

**ALMACENES ARRASATE**

**650 m² zure zerbitzura merkatuko marka onenekin: Fagor, Bosch, Philips, Sony...**

**Etxetresna elektrikoak eta orain... SUKALDEAK**

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak.
Kooperatibistendako prezio bereziak.

Doan egingo dizkizugu proiektua eta aurrekontua.
Konpromiso barik.

Zatoz eta ezagut gaitzazu.
Kataide poligonoan 3 • Roneo ondoan



Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 • Ordutegia: 09:00-13:00 eta 15:00-20:00 • Zapatu goizetan zabalik.

# nak, 75 urte

**JUANJO OLAIZOLA** / 'VASCO NAVARRO TRENA' LIBURUAREN EGILEA

## *"Vasco Navarro trena kentzea burugabekeria izan zen"*

**Vasco Navarro trenaren gainean aditu da Juanjo Olaizola Azpeitiko Trenbidearen Euskal Museoaren zuzendari eta *Vasco Navarro trena* liburuaren egilea. Eta hari esker izan da posible erakusketa egitea.**



**Pozik zaude orain arte erakusketak izan duen harrerarekin?**

Bisitariak geratu behar dira pozik, ez neu. Nire helburua da euren oroimena berpiztea. Orain arte egia da arrakasta izan duela: Gasteizen 12.000 bisitari izan zituen eta Kanpezun, herri txikia izanda, 3.000tik gora. Inguruko herrietatik ere jende asko joan zen bisitan.

**Debagoieneko zatia eraikitzeak berebiziko zailtasunak ekarri zituen…**

Bai, zituzten irtenbideetatik zailena eta korapilotsuena aukeratu zutelako egileek, baita garestiena ere. Kontua da 1886an inbertitzaile britainiarren diruarekin sortu zela The Anglo Vasco Navarro konpainia, eta hark ekin ziola trenbidea egiteari. Baina ez zuten nahiko diru bide onak eraikitzeko. Gatzagatik Eskoriatzarako bidea bihurgunez josita zegoen, eta trenak denbora luzea hartzen zuen hura egiteko, eta makal-makal zebilen. Tunela egitea izango zitekeen onena, baina ez zuten dirurik…

> *"Ibarrean oso garrantzitsua zen trena; hura kentzeko erabakia Madrilen hartu zuten"*

**Trenak bukaera tristea izan zuen: bat-batean desagertu zen. Zergatik?**

Ez dago argi. Baliteke arrazoi bat izatea Gasteiztik Gatzagara oso erabilpen eskasa izatea trenak. Baina Debagoienean garrantzi handia zuen trenak, eta kentzea burugabekeria izan zen. Erabaki hura Madrilen hartu zuten, Arrasate edo Bergara baten beharrak zeintzuk ziren jakin barik.

**Orain, tranbiarekin bide horiek berreskuratuko dira…**

Europan sarritan berreskuratu izan dira tren zaharren bideak tranbiak egiteko. Tranbia autobusa baino hobea da, bai garraiobide publiko moduan, bai eta ingurumenari dagokionez ere. Debagoieneko proiektua nahiko bideratuta dago. Bide zaharra erabiliko da, eta herri bakoitzean lantegietatik eta etxe guneetatik gertu dauden geltokiak ipiniko dituzte.

**Trena bera ere berreskuratuko da euskal *Y*-arekin.**

Ni neu horren alde nago. Ez dut ulertzen AHTk horrelako protesta sutsuak piztea eta egiten ari diren autobide erraldoi horrek ez, autobideak ingurumenari kalte handiagoa egiten dio-eta. Kontua da ez dugula protestarik egiten, guztiok erabiltzen dugulako autoa…



**Lurrunezko lokomotorak 1887an iritsi ziren lehenengoz Vasco Navarro konpainiara. Hasierako seiak *Euskalerria*, *Laurak-Bat*, *Vasco-Navarra*, *Vitoria*, *Mondragón* eta *Guipúzcoa* deitu ziren. Trenbidea eraikitzeko beste batzuk erabili zituzten: argazkian, Eskoriatza eta Gatzaga arteko zatirako erabili zutena. 1926an erosi zuten barne errekuntzako lehen ibilgailua.**






AITOR URIARTE

Arrasateko alkate Xabier Zubizarreta, pankartari eusten, eguen eguerdian Arrasaten egindako manifestazioan.

# Lanuzteak eta manifestazioak egin dituzte, "duintasun nazionalaren alde"

*Atzo, manifestazio jendetsuak egin zituzten Arrasaten eta Bergaran*

ENEKO AZKARATE

**Lanuzteak eta manifestazioak egin zituzten atzo, eguena, ibarreko hainbat herritan. "Euskal Herriaren kontrako erasoak" gaitzesteko, Duintasun Nazionalaren Eguna aldarrikatu nahi izan zuten hainbat taldek.**

Bi orduko lanuzteak deituta zeuden, goizerako eta arratsalderako, aukeran: 11:00etatik 13:00etara edo 18:00etatik 20:00etara. Erantzuna askotarikoa izan zen: lantegi, ikastetxe, denda eta taberna batzuetan ateak itxi zituzten, baina beste batzuetan, denda gehienetan, normal egin zuten lan, goizean.

Bestalde, manifestazioak ere goizerako eta arratsalderako deitu zituzten: goizean, 11:30ean, Arrasaten eta Bergaran egin zituzten manifestazioak. Jendetsuak izan ziren, gainera. Manifestazioaren lelo nagusiak hauexek izan ziren: *Demokrazia Euskal Herriarentzat* eta *Demokrazia orain*. Horixe irakurtzen zen, hain justu ere, Arrasateko eta Bergarako manifestazioetan erabili zituzten pankarta bakarretan. Horrez gainera, bi manifestazioetan ikurrinak eraman zituzten: Bergaran handi bat eta Arrasaten mordoska bat, txikiagoak. Sozialista Abertzaleko hainbat hautetsik eta LABeko ordezkarik hartu zuten parte, beste hainbaten artean, bi manifestazioetan. Arrasateko manifestazioan Xabier Zubizarreta alkatea zihoan aurreko lerroan, pankartari eusten.

**IKASTETXE ETA UDALETAN**

Atzo goiz eta eguerdi partera arte jasotako datuen arabera, lanuzteak egin zituzten Bergarako Udaleko langileek. Arrasateko Udalean, ostera, langile batzuek bai eta beste batzuek ez. Ikastetxeei dagokienez, denetarik: Bergarako Aranzadin ez zuten lanuzterik egin, ezta San Martin Herri Eskolan ere. Migel Altuna Institutuan bai, eta Mariaren Lagundian eta Ipintza Institutuan ikasleek bai eta irakasleek ez. Mondragon Unibertsitateko Eskoriatzako Fakultatean, berriz, greba egin zuten egun osoan. Arrasateko Goi Eskola Politeknikoan, ostera, ikasleek bakarrik. Arizmendi Ikastolan, irakasleek ez, baina goi zikloko ikasleek bai. Enpresei dagokienez, Antzuolako Elayn, Bergarako Geyser-en eta Arrasateko Fagor Etxetresnetan egin zuten lanuztea.

*Arrasaten eta Bergaran izan zuen erantzun handien eguenerako deitutako lanuzteak*

**IKASTETXE ETA UDALETXEETAN**

Bestalde, joan den eguen eta egubakoitzean, Aretxabaletako, Arrasateko eta Bergarako udaletxeetan itxialdiak egin zituzten. Bergaran, itxialdiaren ostean, prentsaurrekoa egin zuten EHko, Batasuneko eta SAko hautetsiek. Bizi dugun egoeraren irtenbidea Euskal Herriaren aitortzan eta "herritarroi dagokigun erabaki eskubidean" oinarritzen dela aipatu zuten. Gainera, eskubide horien defentsan aritutako hiru herritar auzipetu dituztela gogoratu zuten: Jose Luis Elkoro (alkate ohia), Jose Ramon Aranguren (zinegotzi ohia) eta Xabier Arregi (zinegotzia).

# Debagoieneko Udalen Elkarteak 5.600 milioi euroko aurrekontua proposatu du

NEREA ZUBIETE

Debagoieneko Mankomunitateak oraingo astean proposatu ditu 2003. urterako aurrekontuak. 5.600.000 euro, ia 1.000 milioi pezeta, bideratuko dituzte datorren urtean Mankomunitateko zerbitzuak kudeatzeko. Hortik, zatirik handiena Ingurumen Sailak, abere hiltegiak eta Garapen Agentziak eramango dute.

Ingurumen Sailean 2.940.600 euro gastatuko direla zehaztu dute. Besteak beste, errekaren etorria neurtzeko aparailu bat jartzeko, Epeleko isurtegia Europako arauetara egokitzeko eta zabor-bilketa sailkatua hobetzeko. Azken horri dagokionez, gainera, berrikuntza bat ere badago: laster, arropa batzeko ontziak izango ditugu zabor, beira, ontzi eta paperen edukiontzien ondoan; abere hiltegira 1.610.766 euro bideratuko dituzte, gehienbat, lan arriskuei aurre hartzeko planak aurrera eroateko. Horrez gainera, Zubillagako hiltegi aurrealdea ere txukunduko dute; eta, azkenik, Garapen Agentziak 795.000 euro pasatu gastatuko ditu, batez ere, altzariak eta ekipo informatikoak eskuratzeko.

Sailez saileko diru banaketa da hori. Bestela, aurrekontu proposamenaren %29 pertsonal gastuak ordaintzeko izango dira. Gastu arruntak %61 izango dira eta inbertsioak, %10.

Hori guztia, baina, aurrekontu proposamena baino ez da. Orain, ikusi egin beharko da oposizioak zer-nolako jarrera erakusten duen aurrekontu horien aurrean, eta onartzeko bidea zabaltzen duen. Gauzak ondo badoaz, urtarrilean onartuko dute Mankomunitateko datorren urteko aurrekontua.

## BAILARAN LABUR

### Ibarreko beste hiru enpresari eman diete oraingo astean Zilarrezko Q saria

Atzo banatu zituen Eusko Jaurlaritzak Urrezko eta Zilarrezko beste Q sari batzuk. Hain zuzen ere, 16 enpresak jaso zuten kalitatea saritzen duen ziurtagiri hori. Debagoieneko hiru enpresari ere eman zieten saria, Zilarrezko Q saria, hain justu. Oñatiko Ulma Packaging eta Arrasateko Fagor Minidomesticos enpresei eta Eroskiko Merkantzia Orokorren Plataformari eman zieten saria. Banaketa ekitaldia Gasteizko Printzipal antzokian egin zuten, atzo iluntzean, lehendakaria eta hainbat sailburu han zirela. Euskalit erakundeak ematen ditu sari horiek. /E.A.

### Kale bilkurak Bergara eta Oñatin, Antonio Molina guardia zibilaren hilketa gaitzesteko

Martitzenean Guardia Zibilaren eta ustezko bi etakideren arteko tiroketan hil zen Antonio Molina guardia zibilaren heriotza salatzeko, kale bilkurak izan ziren Debagoienean. Hilketa hori gaitzesteko, eguazten eguerdian kale bilkura egin zuten Bergaran eta Oñatin. Euskal Herriko erakunde gehienen atarietan ere egin zituzten bilkurak, lehendakariak deituta. Puerta del Hierro ospitaleko medikuek azaldu zutenez, Collado Villalba herrian izaniko tiroketan larri zauritu zen ustezko ETAkideak, Gotzon Aranburuk, larri jarraitzen zuen eguenean, baina hobera egin zuela esan zuten medikuek. Tiroketan zauritu zen guardia zibila ere, Juan Aguilar, hobeto zegoen. /O.E.

M
MEMESA SL
Industri hornidurak
943 71 24 25



# Ibarreko 210 boluntariok asteburua emango dute Galizian, hondartzetako fuel-olioa garbitzen

*Gaur arratsaldean abiatu dira ibarretik, lau autobusetan, Coruñako Carnota herrira, eta astelehenean itzuliko dira*

ENEKO AZKARATE

**Gaur, egubakoitza, lau autobus irten dira Debagoienetik, arratsaldeko lehen orduan, Galiziarantz, *Prestige* petroliontziak fuel-olioz zikindutako hondartza garbitzera. 212 boluntario ibiliko dira asteburuan Carnota (Coruña) herriko hondartza garbitzen.**

Mondragon Unibertsitateko Eskoriatzako Fakultateak bultzatutako ekimena da. Helburua: Carnotako udalerrian, hain justu, Liran, petrolioz zikindutako hondartza garbitzen laguntzea. Lau autobusak arratsaldeko lehen orduan irten dira: 14:30ean Oñatitik, Enpresa Zientzien Fakultatetik; 15:00etan, Arrasatetik, Mondragon Goi Eskola Politeknikotik; eta 15:30ean, Eskoriatzatik, HUHEZItik. Autobusetan 212 boluntario, guztira: gehienak MUko hiru fakultateetako ikasle eta irakasleak, baina baita ibarreko hainbat enpresatakoak ere, MCC taldeko kooperatibetakoak, batez ere.

Hamar orduko bidaia izango dute Carnotaraino, Costa da Morteko hegoaldeko azken herriraino. Hortaz, gauerdi inguruan iritsiko dira hara. Asteburu gogorra igaroko dute han, fuel-olioa hondarretik eta haitzetatik ateratzeko lanean, hain justu ere. Eta astelehenean itzuliko dira Debagoienera, baina oraindik zehaztu barik dute arratsaldez edo gauez helduko diren.

*Egunean lauzpabost orduz ibiliko dira lanean, Carnotako hareatzan petrolioa kentzen*

*Lirako Arrantzaleen Kofradiakoek antolatu dute dena, eta haiek ipiniko dute materiala*

**IBARREKO ENPRESEN LAGUNTZAREKIN**

Bidaia Praktiker Ikertegiak antolatu du, Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Hala ere, berehala izan du beste fakultateen atxikimendua, baita ibarreko hainbat jenderena ere, unibertsitatean ez dabilena. Hondamendiaren hasieratik Praktiker harremanetan izan da Coruñako Unibertsitatearekin bidai hori antolatzeko. Haiek eskatuta, baina, atzeratu egin dute bidaia, ziurtatzeko izango zela boluntariorik, lanerako materialik eta ganorazko antolaketarik, behin lehen oldea pasatu eta gero.

Bidaia ibarreko hainbat enpresaren laguntzarekin antolatu ahal izan dute. Euskadiko Kutxak, Ulmak eta Fagor Ederlanek eta Ormaiztegiko Irizarrek babestu dute. Azken horrek, esaterako, ipini ditu autobusak, lo egiteko ohatze eta guzti. Lo, baina, Lirako kiroldegian egingo dute. Egonaldia, lanerako jantzi bereziak eta tresneria Carnotako Udalak eta Arrantzaleen Kofradiak ordainduko dituzte. Egunero, lauzpabost orduz egingo dute lan boluntarioek.



**LUXIO UGARTE**
BIDAIA ANTOLATU DUENA

## *"Laguntzeaz gain, hondamendiaz jabetu nahi dugu"*

**Zelan bururatu zitzaizuen Galiziara laguntzera joatea?**

Petroliontziaren hondamendia gertatu eta egun gutxira, Humanitate Enpresako ikasleei planteatu nien ideia; eztabaida sortu zen horren gainean, eta, azkenean, joan behar genuela erabaki genuen. Bestalde, Coruñako Unibertsitateko irakasle lagun batekin, Antonio García itsas soziologoarekin, harremanetan jarri nintzen.

**Zergatik ez zarete lehenago joan?**

Batez ere, unibertsitateko irakasle hark horrela eskatu digulako. Hasieran, oso antolaketa eskasa izan dute, eta itxoiteko eskatu zigun, besteak beste, arazoak luze joko zuela bazekielako. Gauzak ondo lotuta egon arte ez joateko eskatu zigun. Antonio García Lirako eta Muxiako arrantzaleen kofradiekin jarri zen harremanetan, eta, azkenean, Lirakoekin lotu du guztia.

**Lanera joango zarete.**

Bai, laguntza premia handia dute, antolaketa aldetik makal badabiltza ere. Carnotako hondartza garbituko dugu, zortzi kilometroko hareatza, Galiziako handiena. Bestalde, garbitzen laguntzeaz gain, horrelako hondamendi batek eragiten dituen kalteez jabetu nahi dute ikasleek. Hori gertutik bizi izateko asmoa izango dugu. Eta, horrez gain, Coruñako Unibertsitatearekin harremanak estutu nahi ditugu.

Atsedena hartzeko sistemarik hoberenak

beds ®

KOLTXOI DENDAK





• Atsedenean espezialistak
• Koltxoiak, kanapeak...
• Estalki, edredoi nordikoak...

ZARUGALDE 25 • ARRASATE • Tel: 943 77 18 35


Txikilandia 2003
Arrasaten, Musakolako kiroldegian
Urtarrilaren
2 - 3 - 4 eta 5 - ean
Ordutegia:
2-3 eta 4-ean:
11etatik 14etara
16etatik 20etara
5-ean:
11etatik
14etara
TXATXILIPURDI
ANTOLATZAILEA
iKER
SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK
SUKALDE ERAKUSKETA
Udala Plaza, z/g • ARRASATE • Tel.: 943 79 00 43
BAINU ERAKUSKETA
Zarugalde, 52 • ARRASATE • Tel.: 943 79 99 42
FAGOR
BABESLEA
ARRASATEKO UDALA

ANTZUOLA

## KZGunea zabalduko dute urtarrilean, eta ikastaroak egongo dira

Urtarrilaren 29tik aurrera zabalik egongo da Konekta Zaitez Gunea Olaranen.

Bederatzi ordenagailu jarriko dituzte, eta Internet erabiltzeko doako ikastaroak antolatuko dituzte. Interesa dutenek udaletxean eman beharko dute izena, taldeak osatuz joateko eta zenbat jendek interesa duen ikusteko.

**LIBURUTEGIKO ORDUTEGIA**

Gabonetan, urtarrilaren 7ra arte itxita egongo da, abenduaren 26an eta 27an izan ezik; egun horietan, 17:00etatik 19:00etara zabalduko dute. /A.I.



AITOR URIZAR

OÑATI

## Turismo eta Garapen Agentziak lankidetza hitzarmena sinatu du Arantzazuko frantziskotarren komunitatearekin, Arantzazuren etorkizuna aztertzeko

Eguazten eguerdian sinatu zuten lankidetza hitzarmena Angel Iturbe Turismo Agentziako presidenteak eta Ignacio Larrea frantziskotarrak. Iñaki Galdos Turismoko zinegotzia ere hantxe izan zen, hainbat azalpen emateko. Oinarri garrantzitsuenetan ados daude Udala eta frantziskotarrak, eta hainbat ideia dituzte, hala nola: aterpetxe bat egitea, erakusketa gelak, aretoak, e.a. Orain, baina, behin hitzarmena sinatuta, frantziskotarren eraikinei zein erabilera emango zaien eta zerbitzu horiek zelan gestionatu ahal diren zehaztuko duen dokumentua prestatuko du Xabide enpresak; azken baten, aipatutako ideia horien guztien bideragarritasuna aztertu eta ideia horiei forma emango dien proiektua idatziko du. /A.I.

ARETXABALETA

## Giza balioen gaineko astea egin dute Kurtzebarri Eskolan

Atzo, eguena, amaitu zuten Kurtzebarri Eskolakoek urtero egin ohi duten Baloreen Astea. *Ezberdinak gara, baina berdin dio* leloa aukeratu dute aurten giza balioen gaineko jardunaldietarako. Hala, lau egunean, ezberdintasun fisikoak, sozialak eta kulturalak aztertu dituzte. Horretarako, hainbat ekintza egin dituzte: besteak beste, antzerkiak, irakurketa saioak eta jostailu bilketak. Balore Astearen helburua da norbera den modukoa onartuz, besteak ezagutzeko eta onartzeko bideak jorratzea. /A.L.

ARAMAIO

## Floren Untzuetak organo kontzertua emango du bihar, Busturiako elizan

Bihar, zapatua, organo errezitaldia egingo du Floren Untzuetak, Busturiako elizan, 19:00etan. Oro har, XVII-XVIII. mendeko organo piezak joko ditu aramaioarrak. Hiru zati izango ditu errezitaldiak : lehenengo zatian Europako organisten musika interpretatuko du, bigarrenean, Espainiakoena, eta hirugarrenean, euskal organistena.

Kontzertu berezia izango da; izan ere, XVIII. mendeko organoarekin joko du Floren Untzuetak, Gaztelatik ekarritako organoarekin, hain zuzen ere. /U.M.

ESKORIATZA

## Arizmendi Ikastolan, Almen gunean, 500 jostailu jaso dituzte

Solidaritateko Hobekuntzako ikasleek bultzatuta, 500 jostailutik gora jaso dituzte Almenen: "Elkartasunaren gaineko kanpaina eta hausnarketa egin gura izan dugu, eta oso pozik gaude emaitzekin", esan digu Alizia Urrutia irakasleak. *Ume bat jostailu bat* kanpainaren helburua ez da izan etxeetan jostailu garbiketa egitea, "norberaren jostailu bat jostailurik ez daukan ume bati ematea baizik. Elkartasuna adieraztea". Oñatiko Zerbitzu Sozialak jasoko ditu jostailuak, gero, beharra dutenei handik banatzeko. /A.G.

BERGARA

# Etxez etxeko zerbitzuak egunero kale bilkurak egiten jarraituko du

Gizaintza SLko langileek, etxez etxeko zerbitzua eskaintzen duen enpresako langileek, joan den astean hasitako mobilizazioekin jarraitu dute astean barrena. Gainera, Gabonetan ere hala egingo dutela adierazi du Elsa Sánchez LABeko ordezkariak. Egunero ordu erdiko elkarretaratzeak egingo dituzte, 20:00etatik 20:30era, San Martin plazan.

Elkarretaratzeen helburua da "herritarrei ezagutzera ematea etxez etxeko zerbitzuko langileen egoera, eta egoera hori salatzea". LABeko ordezkariak gaineratu duenez, enpresa hitzarmena da mobilizazioen arrazoia. Enpresako zuzendaritzarekin negoziaziotan aritu arren, ez dute ezer adostu.

Besteak beste, hiru aldarrikapen nagusi dituzte langileek: batetik, soldata igoera eskatzen dute; bestetik, kontratazioak aplikatzea; eta hirugarrenik, berdintzea enpresan dauden bi langile moten arteko lan baldintzak.

LABeko ordezkariak gehitu duenez, negoziazioak etenda daude: "Zuzendaritzaren azken erantzuna izan da Herrialdeko Hitzarmenak dioena aplikatuko duela, baina hori martxora arte luza daiteke. Bien bitartean, mobilizaziotan jarraituko dugu".

Bestalde, joan den astean aurreratu genuen muga gabeko greba hasi behar zutela Gizaintza SL enpresako langileek. Edozelan ere, LABeko ordezkariak azaldu duenez, oraingoz elkarretaratzeak bakarrik egingo ditugu". /M.B.

**Zertzelada**

**Hitzarmena negoziatzen ari dira, eta hiru aldarrikapen dituzte: soldata igoera, kontratazioak aplikatzea eta langileendako baldintza berberak.**

ARRASATE

# Museo etnografikoa egitea eskatu du Santamas batzordeak

Azken bi urteotan, Arrasateko 58 baserritatik antzinako tresnak batzen ibili da Santamas Jai Komisiñue, Udaleko Kultura batzordearen laguntzarekin. Asmoa izan da nekazaritzako eta abeltzaintzako antzinako tresnak eta usadioarekin lotutako tresnak berreskuratzea, batzea eta katalogatzea Arrasateko kultura ondare moduan.

Dagoeneko egin dute hori, eta agindutako katalogoa eman diote Udalari. Orain, Komisiñuek Udalari eskatu dio bizimodu horren gainean sakontzeko eta ikertzeko beka edo antzeko zerbait sortzea; eta eraiki gura den museo industrialdean museo etnografikoa sortzea. /U.M.



ARRASATE PRESS

**200 baserri bisitatu dituzte hango tresnak batzeko.**

ELGETA

## Tutoretzapeko etxebizitza eta eguneko zentroa, datorren udarako

Domingo Iturbe kalean jarriko dute Elgetako landa eremuko zentro balioanizduna. Instalazio eta lanen kostua 132.223 eurokoa da: Gipuzkoako Foru Aldundiak 66.576,15 euroko dirulaguntza emango du eta gainerakoa Elgetako Udalak ordainduko du.

Zentroak bi solairu izango ditu: goikoan, tutoretzapeko etxebizitza jarriko dute, eta behekoan, eguneko zentroa. Datorren urteko lehen hiruhilabetean hasiko dira lanekin. Udarako amaituta egotea espero dute. /O.E.

LEINTZ GATZAGA

## Hirurehun ikaslek baino gehiagok pasatu dute eguna Gatzagan

Atzo, eguena, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailako hirurehunetik gora ikaslek Gatzagan pasatu zuten eguna. Elgoibarko eta ibarreko ikastoletako ikasleak ziren guztiak.

Oinez heldu ziren Gatzagara: batzuk Landatik eta beste batzuk Eskoriatzatik. Nekea nabari zitzaien aurpegian askori. Herrira heldu bezain laster txistorra ogitartekoak prest zituzten, indarrak berreskuratzeko. Gatz Museoa bisitatu eta gero, jokoak izan zituzten. /A.G.

# Zabalik



ARANTZA OZAETA

## Politikariak

**Denetik egongo da, botikan bezala. Baina gaur ezin diot tentazioari uko egin: gure politikariak kritikatzea. Iturgaitz gajoa ez da gai bi ideia (soilik bi) lotzeko, Sanz hizkuntza eskubideen kontrako kriminal gisa ezagutuko da etorkizun hobe batean, Mayor Oreja ardi larruz jantzitako otsoa dugu... eta Arnaldok beti du arrazoi, eta, jakina, Arzalluzek eta Ibarretxek. Ez da Madrazoren errua soilik izango, baina oraindik ere gure etxebizitza babesik gabekoa da.**

**Harritzen nau elkarrizketari egiten zaion deia, askotan erabiltzen da berba hori diskurtso politikoan: zein beharrezkoa den hitz egitea, konponbidea elkarrizketan dagoela, etab. Eta elkarrizketa da, badenez, demokraziaren erakusleiho nagusia: zenbat eta elkarrizketarako gaitasun handiagoa, orduan eta demokrazia indartsuagoa. Baina hemen ez dira kontuak ondo ateratzen: elkarrizketa oso ahula dugu gure herrian, hortik demokrazia ere oso ahula izatea gure herrian.**

**Baina eta hemen, hitzak dira gauza bat eta ekintzak beste bat. Esan nahi dut telebistan edo irratian dauden debateak entzutea besterik ez dagoela. Bakoitzak bere astoari arre. Ez da bestearengana hurbiltzeko keinu minimorik ere, hurbiltzeak kalanbrea emango duelakoan. Ez dago joko dialektikorik, monologoa nagusi. Debatea hortaz, non da? Eta debaterako oinarriak non? Zer lan egiten da zubiak topatzeko? Jai dugu, lagunok, elkarrizketa nahi badugu. Hemen harrokeria dago eta ez da urruti ibiliko boterearen gustua, erotika, ere...**

**Elkarrizketarako, debaterako, kultura gutxi dugu. Hor daude Gabonak, eta pasatu da, jada, beste urte bat elkarrizketarik gabe.**

# Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa eta helbidea agertu behar-ko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: goienkaria@goiena.com

## Barandallaren gaixotasuna okertu egin da

Tamalez, beste behin ere, egoera larri baten aurrean gara, gure senitarteko baten bizitza sokamutur batetan aurkitzen baita.

Oraindik ezin ahaztu dezakegu Esteban Nietorekin egin zutena: ekimen ugariren ostean utzi zuten aske, baina, jada beranduegi zen, urteetan senideekin egoteko aukera ukatua izan zuen eta aske zenean hilabete apur batzuk soilik egon ahal izan ziren sendi osoa batuta.

Ramon Gil Ostoagarekin egin zuten injustiziagatik eta maltzurkeriagatik oraindik ez zaigu samina pasa, jada, Ramon Gil Ostoagaren gertaerak atzera biderik ez zuenean, orduan, orduan izan ziren damu eta salaketa guztiak.

Horregatik guztiagatik, Etxerat eta senitartekoak ez gaude prest Bautistarekin egoera berbera jasateko. Konponbiderik ez duen egoera baten damuak ezin ditzakegu onartu. Inork, ez beza pentsa gure eta gure senideen eskubideak jolaserako direnik, ez baitugu hori onartzeko aukerarik emango. Kalean egongo gara, eskubide guzti horien salaketa egiteko. Halaber, egoera hau izaki, mobilizazio nazionala antolatu dugu. Manifestazio nazionala egingo dugu, gizatasuna, justizia, legearen betetzea eta gizarte honen gura den Bautistaren askatasuna oihukatzeko parada egingo dugu. Amaitzeko, deialdia luzatzen dizuegu abenduaren 22an antolatua den manifestaldi isil eta nazionalera ager zaitezten. Bautista kalera, orain!

ARRASATEKO ETXERAT
Arrasate

## Bergarako Udaleko Jose Antonio Etxeberriari

Astean zehar jaso dugu etxean, “Bergara 2003”, gida bezalako zerbait. Ustez eguneratua. Zerbaiten bila nenbilela —ahaztu zait zer— akatsak aurkitzen hasi nintzen. Bai, aurkitzen. Hainbeste egonda, ez zegoen bila ibili beharrik, berez agertzen ziren, txanpinoiak udazkenean bezala. Hor doaz batzuk: Larrañaga (Seat, Audi VW) autoak; Andres, Arando, Ibarra eta La Unión tabernak; Zesterokua autozerbitzua, Ipar Center brikolajea; Imaz (Mugarza) eta Josu Leturia harategiak; Bazar Corpa; Koxka gozotegia; Cine Bank bideokluba; Zubiaurre arrandegia…

Eta, akats hauek guztiak, dagoeneko desagertutako negozioenak besterik ez dira. Batzuk aspaldi desagertutakoak, oso aspaldi. Faltan ere badaude negozio piloa, gutxienez beste hainbeste.

Etxeberria zinegotzi jauna: jakingo duzunez, jarduera ekonomikoen zerrenda osoa eta eguneratua Udalak izaten du, horren arabera jarduera ekonomikoen gaineko zergak kobratzen dituelako eta, horretaz gain, Aldundiarekin batera kudeatzen duelako.

Behintzat, Udalari buruzko datuak ondo egotea espero dut. Hori plazaratzea nahi bazenu, laga bakean beste guztia. Argi dago ez duzula asko ezagutzen, edo bestela, ez zaizula gehiegi inporta.

Ea Goienak urtarrilean argitaratuko duen gida hobeto eginda dagoen. Beste honek, behintzat, ez du merezi. Ah. Ez zenion inori ezer ordainduko “lan” hau egiteagatik, ezta? Argazkiak oso politak.

IÑAKI LARRAÑAGA
Bergara




### Zazpi urtekari, GOIENKARIArekin batera, datorren astean

Datorren egubakoitzean, hilaren 27an, argitaratuko dugu urteko azken GOIENKARIA, 24 orrialdeko ohikoa. Baina, horrekin batera, zazpi urtekari ere argitaratuko ditugu, herri bakoitzeko bana: *Arrasate Press, Txirritola, Berrigara, Kontuola, Goibekokale, Aretxagazeta* eta *Ze Barri?*. Herriz herri urteari gainbegiratua egingo diogu aldizkari bereziotan. Bestalde, hurrengo zenbakia urtarrilaren 10ean jasoko duzue, Gabonetako oporren ostean.

# Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE




Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**ZUZENDARIA**
Eneko Azkarate
**ERREDAKZIO KONTSEILUA**
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal

**ADMINISTRAZIOA**
Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
**SAILETAKO ARDURADUNAK**
Goio Arana (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

**PUBLIZITATEA**
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martinez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín, Imanol Elortza
**PRODUKZIOA**
Iban Arantzabal

**TESTUEN ZUZENKETA**
Sergio Azkarate
**HARPIDETZA ETA BANAKETA**
Julen Aranguren

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
**LEHENDAKARIA**
Estepan Plazaola
**ZUZENDARI NAGUSIA**
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.


ENEKO AZKARATE

# Juan Zelaia

ENPRESABURUA ETA EUSKALTZALEA

## “Gehien kezkatzen nauena da abertzaleon arteko zatiketak. Txikiak gara, eta hala ere, zatituta gaude”

Juan Zelaia Letamendi (Oñati, 1920). Enpresaburu eta euskaltzalea. Era askotako enpresatako jabea: Cegasa, Tuboplast, Hidronor; Lan upeltegiak; hainbat hedabide… Anton Abbadia saria eman zion atzo, eguena, Gipuzkoako Foru Aldundiak, euskararen alde urtetan egindako lanagatik. Lehen ere jasoak ditu Sabino Arana Fundazioarena, Lan Onari saria…

ENEKO AZKARATE

**Gipuzkoako Foru Aldundiak Anton Abbadia saria eman dizu, besteak beste, urtetan euskararen normalizazioaren alde egindako lanagatik.**

Ez dut uste horregatik denik, bizitzan zehar euskal kulturaren alde egin dudalako baizik. Euskararen normalizazioaren alde egindako lanagatik bada, gehiegi iruditzen zait.

**Bueno, hala ere, beste sari bat.**

Bai, batzuk eman dizkidate: Lan Onari saria, Sabino Arana Fundazioarena…

**Zelan hartu duzu azken hau?**

Anton Abbadia saria eman behar zidatela esatera etorri zirenean, harrituta hartu nuen berria: “Baina, zergatik niri”, esan nien… Baina tira, gero, gustura hartu nuen. Sariak gustura hartzen dira. Zigorrak baino pozago. 82 urte ditut, gure herriko semea naiz, eta ahaleginak egiten ditut gure kulturaren alde egiteko…

**Euskararen, euskal kulturaren, herri honen alde… egin duzula aitortu dizute erakundeek. Zuk horrela uste duzu?**

Ez dakit, bada… Uste dut inork ez duela egiten larregi bere herriaren alde. Beti aitzakia bila gabiltza. Bizitza osoan ahalegindu naiz euskaraz berba egiten eta euskal kulturaren alde lanean dabiltzanei laguntzen. Ez dakit, hala ere, nahikoa izan den laguntza hori.

**Eta, jeneralean, euskararen alde nahikoa egiten dela uste duzu?**

Ez. Aitzakia bila gabiltza beti, ezer ez egiteko. Batzuek diote politikoek egin behar dutela; beste batzuek, dirua dutenek… Nik uste dut norberak ahal duena egin behar duela… Hilzorian dagoenak ere bai. San Frantzisko Xabierrek, hilzorian, azken berbak euskaraz egin zituela irakurri dut. Hori oso pozgarria da.

**Euskararen egoerak hobera edo txarrera egin du azken urteotan?**

Aurrerapausoak eman dira; bestela, euskara zeharo galduta egongo litzateke. Baina egoera zaila da euskararendako, eta aurrera egin behar dugu: gutxi gara, herri txikia gara… Norberak ahalegin apur bat egiten badu, urte askoan iraungo du euskarak. Ikastolarik onena geure artean euskara erabiltzea da. Jakina, erabiltzeko eskolak eta tresnak behar ditugu, baina garrantzitsuena erabiltzea da.

**Irakurtzeko zaletasun handia daukazu?**

Lehen, handiagoa. Historiako liburuak, antropologiakoak… Holakoak gustatzen zaizkit. Euskaldunok eta beste herri batzuk zer garen, zergatik garen modu batekoak edo bestekoak, nondik gatozen… Kezka horiei erantzuten dieten liburuak ditut gustuko. Munduan ezpatak agindu du beti, eta ez arrazoiak. Beti izan da horrela, eta gaur egun ere horrela da.

**Hedabide batzuetan ere baduzu jabetzarik. Interesa daukazu hedabideetan?**

Nik beti esan dut gauza bat: ni naiz Juan Zelaia Letamendi, eta bizitzan zehar egin dut hau eta egin dut bestea. Baina helburua beti izan dut gizon moduan erantzutea. Enpresaburua? Bueno, bai, baina lehenengo gizona naiz, eta gizon moduan erantzuten ahalegindu izan naiz beti.

**Kezkatzen zaitu, hala ere, hedabide handiek euskal abertzaleen gainean darabilten jokaerak?**

Gehien kezkatzen nauena da abertzaleon arteko zatiketak. Txikiak gara, eta hala ere, zatituta gaude. Ni ez naiz taldezalea, ezta erlijiozalea ere. Ez noa baten edo bestearen alde. Ez dakit, bada, herri honetan ez ote dagoen *aiatolah* larregi. Elkarrekin jardun behar dugu, eta lehenengo helburua gure herria da. Gerorako laga behar ditugu alderdiak. Taldezale asko eta herrizale gutxi. Jendeak jakin behar du indar txikia daukagula elkartuta jardunda ere; hortaz, zatituta bagabiltza, ez daukagu batere indarrik.

**Ondo informatuta egotea gustuko duzu?**

Bai, baina nire iritziz, batzuetan, informatu ordez nahastu besterik ez gaituzte egiten hedabideek. Jakiteko, denei entzun behar zaie, handik eta hemendik jaso behar dugu informazioa. Baina larregi manipulatzen dute hedabideek. Gure aldean indar handia dute abertzale ez diren hedabideek. Azken hauteskundeetan, besteak beste, horrenbeste informazio manipulaturi erantzuna eman zion herriak.

**Burujabe izango bagina, okerrago geundekeela diote batzuek. Zer iritzi duzu zuk?**

Sortzez naiz euskalduna, eta horrela jarraitu gura dut. Baina euskalduna izateaz gain, gizona naiz eta mundukoa naiz. Nire ustez, Europa herriek egin beharko lukete, eta ez estatuek. Eta, horrez gain, mundukoa naiz, eta, horregatik, harremanik onena gura nuke denekin, baina geurea galdu barik…

**Eta geuk erabakita.**

Geuk erabakita, jakina. Erantzun bat emateko, erabakitzeko, askatasuna behar dugu.

**Aipatu duzu indarrak mugiarazi duela mundua. Gaur egun ere horrela da?**

Bai, baina uste dut indarkeriaren azken aroan gaudela. Bush aipatzen dute askok. Eta, Sadam Hussein? Hark bere herriaren izenean berba egiten duenean, benetan da horrela? Francoren mendean bizi izan naiz 40 urtez; hark esaten zuen: “Españooles…”. Eta, nik esaten nuen: “Txo, nire izenean ez ezazu berbarik egin, horretarako eskumenik ez baitizut eman”.

**Zuk esandakoa da zuregatik izango balitz ez zenukeela utziko lantegi gehiagorik jartzen Debagoienean.**

Araban, Nafarroan, lautada handiagoak dituzten tokian jarriko nituzke lantegiak. Hemen dagoeneko ez dago tokirik industriarako. Goi mailako ikertegiaketa, Garaia izango denaren modukoak, ipiniko nituzke. Besterik ez. Ez nuke gura Oñati beste Arrasate bat edo beste Bergara bat izaterik. Ondo bizi gura badugu, zaindu egin behar dugu ingurua. Beti esan izan dut, txantxetan: “Jaungoikoan zela sinistuko dut, Eibar existitzen bada?”

**Ez zara sinestuna, hortaz?**

Ez dakit zer esan gura duen sinestun izateak. Ez daukat erantzunik. Batzuek diote ateoak direla. Baina “zergatik?”, diot nik. Sinestuna izateko motiborik ez daukat, baina ezta sinestuna ez izateko ere. Mundua ezagutzearekin nahikoa daukat. Hortik aurrera…, zer gara, nora goaz… Ez dakit.

**Ardoaren esparruan ere bazabiltza azken urteetan. Zer dela eta?**

Ez dakit. Kasualitatez, uste dut. Edo beti edaleak izan garelako. Lagun batzuek animatuta sartu nintzen Lan upeltegietan.

**Gustuko duzu egiten duzuen ardoa?**

Bai, asko. Ahalegin handia egin dugu ardo ona egiteko. Uste dut zuzen gabiltzala.

**Eta txakolina?**

Mahastiak sartu nituen orain dela urtebete. Zergatik txakolina? Batetik, lurrak ditugulako etxe inguruan; eta, bestetik, lehen ere, orain dela 100 urtera arte, txakolina egiten zelako etxe honetan eta, gurean bezala, inguruko baserri gehienetan ere. Izan ere, baserrian ez zegoen dirurik, eta *piztu* gura zutenean, erosteko dirurik ez zeukatenez, etxean egin behar zuten txakolina edo sagardoa.

**Hala ere, zure etxeko ardo zuriari ezin izango diozu *txakolin* izenik jarri, legearen arabera, Gipuzkoan txakolina Zarautz, Getaria eta alde horretan bakarrik egin daitekeelako. Zer deritzozu?**

Negargarria da. Bizkaian ondo egin dute: Bizkaian denei eman diete aukera; Araban ere ondo egin dute; Gipuzkoan, ez. Hala ere, jatorrizko izendapenaren araudi hori laster aldatuko dutela uste dut.

### EUSKARARI LAGUNTZA

**“Bizitza osoan ahalegindu naiz euskaraz berba egiten eta euskal kulturaren alde lanean dabiltzanei laguntzen. Ez dakit, hala ere, nahikoa izan den laguntza hori”**

### HERRIEN EUROPA

**“Herriek egin beharko lukete Europa, eta ez estatuek. Eta, horrez gain, mundukoa naiz eta, horregatik, harremanik onena gura nuke denekin, baina geurea galdu barik...”**

*Podiuma*

# Jon Aperribai |EUSKADIKO TXAPELDUNA DUATLOIAN|

**Euskadiko triatloi eta duatloi txapeldunek sari banaketa izan zuten aurreko zapatuan Donostian. Hantxe izan zen Jon Aperribai. Duatloian, arrasatearra dugu Euskadiko txapelduna.**

**Duatloiko lasterketa gehienetan, lehenengo hiruren artean amaitu duzu. Erregularrena izatearren irabazi duzu txapelketa...**

Gustura nago egin dudan denboraldiarekin: Intxaurrondoko Duatloian lehenengo amaitu nuen; Arrigorriagan, Arbizun eta Eibarren, aldiz, bigarren izan nintzen; eta Barakaldo eta Lugon, hirugarren. Bederatzi proba jokatu, eta sei proba hiru lehenengoen artean amaitu. Pozik egotekoa da. Taldeak ere maila ona eman du, onenen artean ibili gara.

**Izan ere, ezin dugu ahaztu Antxintxika Taldekook lehenengo postua eskuratu duzuela...**

Aurtengoa denboraldi garrantzitsua zen guretako. Lehenengo aldiz Bergarako Antxintxika Taldeak eta Arrasateko Duatloi Taldeak elkartuta hartu dugu parte txapelketan. Emaitzek eta taldean daukagun giroak argi erakusten dute aldaketa hoberako izan dela. Lasterketa gehienetan 20 bat lagunek hartu dugu parte. 150-200 lagunek osatutako tropelean talde garrantzitsua zen gurea. Taldeak arlo guztietan ondo funtzionatu du.




GOIENKARIA

Jon Aperribai, Oñatiko Duatloian helmugara heltzen.

**"Euskadiko Txapelketak bederatzi proba izan zituen, eta sei proba hiru lehenengoen artean amaitzea pozik egoteko modukoa da"**

**"Lasterketa gehienetan 20 bat lagunek hartu dugu parte. 150-200 lagunek osatutako tropelean talde garrantzitsua zen gurea"**

**Triatloian podiumera igotzeko zorian izan zara. Laugarren postuarekin konforme?**

Zenbait lasterketatan bigarren eta hirugarren amaitu dut; sailkapen orokorrean, berriz, laugarren. Duatloian hobeto moldatzen naizela esan daiteke. Igeriketan erdialdean ibiltzen naiz: lasterketa batzuetan aurrenekoen artean amaitu dudan arren, beste batzuetan, kostatu egin zait. Igeriketa lehenengo proba izaten da, eta hor galdutako denbora berreskuratzea gaitza izaten da, bizikletan eta korrika aurkariak aurreratzea gaitza izaten da-eta.

**Nondik datorkizu kirol honekiko zaletasuna?**

Aurretik, txirrindularitzan ibili nintzen, amateur mailan, hiru urtez. Hura utzi, eta 1999an hasi nintzen kirol honetan. Hasieran, lasai hartu nuen. Kirola gustatu egin zitzaidan, eta orain dela urte bi, serioago ekin nion.

**Debagoieneko maila zelan ikusten duzu?**

Lasterketa gehienetan hamar lehenengoen artean debagoiendar ugari sailkatu gara: ni neu, Zuhaitz Ezpeleta, Larrea anaiak, Peña, Garitano... Azken urteotan jendea animatzen ari dela dirudi. Ea horrela jarraitzen dugun.

**Aurrera begira, zein helburu dituzu?**

Aurten bezala, datorren denboraldian ere aurreko aldean ibili gura nuke duatloian. Neguko triatloiak probatzeko asmoa ere badaukat. Igeriketa beharrean, eskiatzen hasten dira probak. Triatloiak, berriz, lasaiago hartuko ditut.

OXEL EROSTARBE

## VENTANAS SAN MIGUEL SARIA

**Aste bukaerako emaitzak:** Amaikak bat- Aretxabaleta: 1-0 / Ordizia-Bergara: 0-1 / Zestoa-Aloña Mendi: 1-1 / Eibartarrak-Mondra: 2-2

ASTEKO JOKALARIRIK ONENAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| **1.** | Iñaki Laka | (Aloña) | 3 puntu |
| **2.** | Gorka San Vicente | (Bergara) | 2 puntu |
| **3.** | Kerman Azkarraga | (Aretxabaleta) | 1 puntu |




**Iñaki Laka**
Aloña




**Gorka San Vicente**
Bergara




**Kerman Azkarraga**
Aretxabaleta

**Iñaki Laka**
Gogor egin zien aurre zestoarrei Aloñako atzelariak.

**Gorka San Vicente**
Gola, eta ordiziarrak esku-hutsik bueltan etxera.

**Kerman Azkarraga**
Arrasatearra UDAko atzelaria izango ez balitz.

SAILKAPEN OROKORRA

| | | | |
|---|---|---|---|
| **1.** | Gorka San Vicente | (Bergara) | 9 puntu |
| **2.** | Jon Muruamendiaraz | (Mondra) | 6 puntu |
| **3.** | Xabi Camino | (Aloña) | 5 puntu |
| **4.** | Kerman Azkarraga | (Aretxabaleta) | 4 puntu |
| **5.** | Iñaki Laka | (Aloña) | 3 puntu |




**Gorka San Vicente**
Bergara




**Jon Muruamendiaraz**
Mondra




**Xabi Camino**
Aloña




**Kerman Azkarraga**
Aretxabaleta




**Iñaki Laka**
Aloña

VENTANAS SAN MIGUEL
Iturriotz 24 • 20500 **ARRASATE**
Tel.: **943 79 78 10**
Ibargarai 4 • 20570 **BERGARA**
Tel.: **943 76 12 21**

ATZOKO TXAPELDUNAK

## Jesus Fernández
## Plater tiroketa




Euskal Herriko lehenengo txapelketa irabazi zuenean.

**Munduko Txapelketan hirugarren egin zuen.**

**Txapelketa guztietako podiumera igo da.**

**Ziklokrosean ere garaipen ugari lortu zituen.**

Gaztea zenetik, kirolean jardun du Jesús Fernándezek. Lehenengo, txirrindularitzan: "Eskoriatzako taldean ekin nion, eta handik, Bergarako taldera pasatu nintzen. Batez ere, ziklokrosa egiten nuen. 1954an ekin nion: Aretxabaletako Ziklokrosa korritu nuen, lehenengo aldiz. Lasterketa hura irabazi egin nuen". Urte berean, Vasco Navarro Txapelketan hartu zuen parte. Eta han ere irabazi egin zuen: "Bi proba haiek irabazita, neure buruari 'hau erraza duk' esaten nion; 1955ean, Espainiako Txapelketan hartu nuen parte, Sabadellen: hirugarren egin nuen; 1956an, Munduko Ziklokros Lasterketan hartu nuen parte, Luxenburgon. Mitxelenak 26. egin zuen eta ni 28. izan nintzen. Gero, Baionan, Munduko Txapelketako errebantxa izan zen, eta bigarren egin nuen. Handik bueltan, utzi egin nuen, etxean lagundu beharra zegoen-eta. Horren pena badaukat".

Orduan ekin zion Jesús Fernándezek plater tirokteari: "Beti gustatu izan zaizkit eskopetak. Inguruko tiradak irabazten hasi nintzen, eta txapelketa gehienetan hartu dut parte; 1976an, Euskal Herriko lehen txapelketa irabazi nuen, Azkoitian. Lehenengo txapelketa izan zenez, garaipen hura asko estimatzen dut".

1981ean, Europako Txapelketarako hautatu zuten, Errusian. Han zilarrezko domina irabazi zuen. Dauden txapelketa guztietan podiumera igo da Jesús Fernández: "Munduko Txapelketan podiumera igotzea geratzen zitzaidan, eta 1989an lortu nuen, Portugalen, hirugarren eginda". Aurten, beteranoen mailan, Espainiako Txapelketa irabazi du Granadan. /O.E.

***"Txirrindularitzan ondo nenbilen arren, utzi egin behar izan nuen, etxean laguntzeko. Horren pena badaukat"***



Jesús Fernández• Eskoriatza • 1934


Pertsonengandik gertu dagoen multinazional bat.
www.fagor.com
Gero eta gehiago dira mundu osoan egunero Fagorrekin esnatzen direnak. Multinazional gisa etxetresna elektrikoen arloan daukagun nagusitasuna, 4.600 lagileko lantalde batek bermatzen du. Era berean gure etxetresna elektrikoak mundu osoan aurki daitezke, 3 kontinentetan lantegiak, eta atzerriko salmentetan gorakada ikusgarri bat.
GARANTIA 5 URTEKO
5 urtetan pieza eta osagai guztiak doan.
FAGOR
Besteak baino gehiago

# Kaixo!

Nagore Ferreiro eta Maite Nuñez,
diseinu eta koordinazio arduradunak.









Jakinako lantalde berria gara.

Zure etxeko sukaldea eta bainugela ondo berritu ditzazun lan egiten dugu.
Eta zeramikako azken berrikuntzak ere eskaintzen dizkizugu.

Diseinua, kalitate/prezio erlazio bikaina eta saldu osteko zerbitzu ezin hobea dira gure ezaugarriak.

Gainera, gremio guztiak koordinatzen ditugu.

Eta, orain, aukera berezia daukazu: erakusketa aldatu behar dugulako, prezio bereziak sukaldeetan eta bainugeletan.

Zain gauzkazu.
Jakina, zurekin pentsatzen.

FAGOR
Sukaldeko altzariak

AENOR
Produktu zertifikatua

6 URTEKO GARANTIA

# JAKINA

BAINUGELAK • ZERAMIKA • SUKALDEAK

JAKINA
San Lorentzo Industri Pol.,
Amillaga 10. BERGARA.
Tel.: 943 76 03 30. Faxa: 943 76 02 91.

Goienka2a

Egubakoitza / 2002ko abenduaren 20a

Kultura eta aisialdia

Abenduaren 20tik 27ra

# Oliver!

Denbora laburra, baina lanerako ilusio eta gogo handia. Hori izan da Bergarako Orfeoiak azken hilabeteotan estresari aurre egiteko erabili duen errezeta. Lanpetuta ibili dira, eta ez zen gutxirako: Bizkaiko Diputazioak eurek 1999an taularatutako *Oliver!* antzerki

## Ibarreko arrakasta, orain Bilbon

### Bergarako Orfeoiak Bilbon eskainiko du *Oliver!* antzezlana euskaraz, 1999an arrakasta handia izan zuena geurean

musikala aukeratu du Gabonak egitasmoko izarretako bat bezala. Programa horretan Aldundiak publiko handiarendako erakargarri izan daitezkeen musikalak eramaten ditu Euskalduna jauregira. Aurten, lau antzezlan antolatu dituzte, eta *Oliver!* da umeendako lan bakarra. Harro egoteko moduko arrazoia dute, hortaz, lana erlojuaren kontra prestatzen ibili diren bergarar eta arrasatearrek. Gainera, dagoeneko antzeztutako lana zenez, ez zaie hainbeste kosta izan hori freskatzea.

Urtarrilaren 2tik 5era, egunero antzeztuko dute lan hori Orfeoiko kideek. 120 bat lagunek hartuko dute parte; horietatik, 45 ume eta gaztetxok, Charles Dickens idazle ingelesak idatzitako klasikoa ahots bikainekin biziberritzeko. Zorte on guztiei! /LEIRE KORTABARRIA



GOIO ARANA

MUSIKALAK/ **BERGARAKO ORFEOIAREN LAU SAIOAK IKUSTEKO SARRERA GUZTIAK SALDU DIRA**

# 'Oliver!' musikala, guretik Bilbora

ORFEOIAREN LAN BIKAINAK IBARREAN IZAN ZUEN ARRAKASTA IKUSITA, BIZKAIKO DIPUTAZIOAK HAN ESKAINTZEA ESKATU DIE

LEIRE KORTABARRIA

**Hiru mila sarrera-txartel baino gehiago jarri dituzten salgai Bergarako Orfeoiak Bilbon antzeztuko duen *Oliver!* musikalarendako. Eta guztiak saldu dituzte. Musikal hori orain dela 3 urte estreinatu zuten, eta ibarrean izandako arrakasta kontuan hartuta, Euskalduna jauregia ere debagoiendarrez lepo beteko da.**

Debagoieneko musika eta antzezpen esparruko arrakasta handienetariko bat, debagoiendarrek egina, orain, hemendik kanpo ere arrakasta bihurtzekotan dago. *Oliver!* antzerki musikala da lan hori. Bergarako Orfeoiak taularatuko du, lehenengo txalo zaparradak jaso eta hiru urte geroago. Oraingoan, Bilboko Euskalduna jauregian izango da, urtarrilaren 2tik 5era, hain zuzen ere. Charles Dickens ingelesak 1838an idatzitako eleberrian oinarritutako antzezlana da *Oliver!*.

**EUSKARAZ, LEHENENGOZ**

Bizkaiko Diputazioak urtero antolatzen du poltsiko guztiendako moduko musika eta antzerki egitaraua Euskalduna jauregian. Euskarazko eta umeendako ekoizpena gura zuten, eta bergararren lana hautatu zuten. "Ustekabe polita izan zen guretako, bai", onartzen digute Bergarako Orfeoiko arduradunek.

*Oliver* umezurtzaren gorabeherak kontatzen ditu musika eta antzerki lan horrek, drama eta komedia uztartuta. 120 debagoiendar inguruk hartuko dute parte antzezlanean. Debagoiendarrei dagokie Dickensen lana euskaraz lehenengoz antzeztearen ohorea, Miguel Moñuxek, Pello Txintxurretak eta Margaretta Allgrem-ek egindako moldaketarekin. Haren gaineko bigarren bertsioa egin behar izan dute: "1999an, helduendako lana zen, eta hiru ordu irauten zuen; orain umeendako denez, bi ordu eta 20 minutura moztu dugu".




BERGARAKO ORFEOIA

Orfeoiko arduradunak eta *Oliver!*-eko protagonistak, aurkezpen egunean. Miriam Díaz-Arocak *101 dálmatas* aurkeztu zuen.




**ARITZ OTADUI** / 'OLIVER'

## *"Badakit lasai egongo naizela"*

**Aritz Otadui bergararrak (9 urte) 1999an Julen Iñarrak egin zuen papera egingo du, eta pozik dabil entseguetan.**

**Zer iruditu zitzaizun zu aukeratu izana?**

Musika Eskolako irakasle batek esan zidan aukeratu nindutela. Hasieran, beldur nintzen, baina gero, 1999ko bideoa ikusi nuen eta pentsatu nuen egin ahal izango nuela. Pozik ibili naiz.

**Zer da zuretako zailena?**

Antzeztea egiten zait zailen. Gehien gustatzen zaidan zatia da *Oliver* umezurztegian dagoenekoa, eta zailena, aberatsen etxean dagoenekoa.

**Urduri ez jartzeko aholkurik eman dizute?**

Ez didate ezer esan, baina unea iristean, lasai egongo naiz.



Aritzek *Oliver*-ena egingo du.

**GORKA MAIZTEGI** / 'TUNANTE'

## *"Aurten, errazagoa izan da"*

**Gorka Maiztegi bergararrak (12 urte) badaki zer den *Oliver*-en lan egitea, duela 3 urte ere ibili zen-eta.**

**Zelakoa da zure papera?**

Lapurren buruzagia da. Lagun asko ditu, eta *Oliver*-en lagun ere egiten da. Aurrekoa baino paper garrantzitsuagoa da. Egin nahi ote nuen galdetu zidaten, eta baietz esan nuen.

**Aldea sumatu duzu orain dela hiru urteko entseguen eta oraingoen artean?**

Bai. Aurrekoan, guztia hankaz gora zegoen, eta guztia martxan jartzea zailagoa izan zen. Aurten, orduko bideoetan oinarritu gara, eta askoz errazagoa egin zaigu.

**Kantua ala antzerkia, zer izan da zailena?**

Bietan nabil oso gustura.



Gorkak ere paper garrantzitsua du.

## Alde on eta txarrak

**Lehen ere antzeztutako lana izateak alde onak eta txarrak izan ditu Orfeoiarendako: "Aurrekoan, zazpi hilabete eman behar izan genituen entsegutan; orain, lana lehen eginda genuelako, askoz errazagoa izan da", dioskute Orfeoiko kideek; hala ere, beste alde batetik, "antzezle gehienak lehengo berak ziren, baina ume protagonista berriak aurkitu behar izan ditugu; eta, horiek berriak zirenez, zailtasunen beldur ginen. Baina oso azkar ikasi dute", azaltzen dute zuzendariek.**

**David Azurza Orfeoiko zuzendariak eskertu egin du eskarmentua: "Orfeoiei kosta egiten zaie antzezten ikastea, ohitura falta dutelako; baina guk *Miserableak* edo *San Martinen estanpak* egin genituen, eta aktoreak ondo moldatu dira", dio. Ezin ahaztu, bestalde, *Oliver!* bera Debagoienetik kanpo ere antzeztu zutela.**

## Kritikarien txaloa

**Bizkaiko Foru Aldundiak urtero antolatzen du Gabonak abenduko kultura egitaraua. Orain dela hiru urte abiarazi zuten egitasmo hori, operak eta antzerki musikalak publiko orokorrari helarazteko asmoarekin. Aurten, 27.000 ikus-entzule erakartzeko helburua du Diputazioak. Bina opera eta musikal taularatuko dituzte aurten, eta horietako bat da *Oliver!*. Euskarazko bakarra da, gainera: "Diputazioak umeei zuzendutako lana nahi zuen, eta Bilbon *Oliver!* bezalako euskarazko lan bat egokien umeek ulertuko zutela pentsatu zuten", diosku Orfeoiak.**

**Adituek oso ondo hartu dute *Oliver!* kartelean izatea, eta Bergarako Orfeoiaren esfortzua txalotu dute: "Antzerki esparruarekin loturarik ez duen talde handi baten lankidetzaren eredu bikaina da", diote.**

**Aldatu Vodafonera eta kudeatu zure enpresa mugikortasunez.**



**Universal 60 kontratua.**
**Nokia 8310**

- Deitzeak 13 zent./min. bakarrik, edozein egun eta ordutan.
- **Hileroko kuota barik.**
- Enpresako poltsikokoen arteko deiak 5 zent./min. bakarrik.
- GRPS teknologia.

Eskuratu honako telefonoa Universal 60 kontratua eginez, eta datu mugikortasunean zerbitzu aurreratuenak izango dituzu:

- **Mezularitza zerbitzuak; Mensaweb; SMS ugari bidaltzea; Vodafone Mail; zure posta guztia puntu baten.**
- **Gastuaren kontrola: Facturaweb; hau da, edonon zaudela ere zure faktura ikusi ahal izango duzu.**
- **Zerbitzu internazionalak.**

**Vodafoneko Enpresa Aholkulariaren honako telefonoetara deituta bakarrik lortuko duzu.**

**DETEL COMUNICACIONES, S.L.:** 600 439 262. Arrasate
**EUSKOTEL, S.L.:** 670 423 217. Eibar

2002 ko azaroa. Airtel Móvil SA telefonia mugikorreko baldintza orokorren arabera emandako zerbitzuak. Vodafone telefonoekin bakarrik erabiltzekoa. Zeharkako zerga gehitu behar zaio. Dei ezartzea 12 zent. Kontsumo minimoa 60€ Universal 60rako. Lehenengo linearako 21€ alta ematearren eta bigarrena eta hurrengoak, doan. Universal 60 kontratuan alta emanda enpresendako eskaintza baliagarria garraiatasun eskaria bidaliz 23/11/02 eta 31/12/02 bitartean, urtebetez kontratu berari eutsiz eta urtebete horretan baja ematea baztertuz. Unitate mugatuak (7.500 unit.).*Kontu bereko poltsikokoendako Universal 40 eta 60 kontratuetan.

vodafone
Banatzaile Baimendua

# Abenduak 20–27

**Leire Kortabarria /** Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## ANTZERKIA

### ARRASATE

► ***Non dago trukoa?* saioa** eskainiko dute Gari, Montxo eta Joxe Lontxo pailazoek eta Sergio magoak bihar, zapatua, Amaia udal antzokian, 17:00etan.

### ELORRIO

► ***Kontenedore baten istorioak*** antzezlana eskainiko du Maskarada taldeak gaur, egubakoitza, Arriola aretoan, 22:30ean.

### ESKORIATZA

► ***Bella Makia Bella*** antzezlana ikusteko aukera izango da bihar, zapatua, gaztetxean, 19:00etan.

### OÑATI

► ***Sutargi*** dantza tradizional eta modernoen ikuskizuna eskainiko du Aukeran taldeak gaur, egubakoitza, Santa Ana antzokian, 22:30ean.

## MUSIKA

### ARETXABALETA

► **Leizarra musika eskolakoek** kontzertua eskainiko dute gaur, egubakoitza, euren egoitzan, 18:00etan.

► **DJ Manuk** musika emanaldia egingo du bihar, zapatua, 19:30ean, gaztetxean.

► **Akordeoi Orkestrak** kontzertua eskainiko du bihar, zapatua, eliza nagusian, 20:00etan.

► **70eko eta 80ko hamarkadetako musika jaialdia** izango da bihar gauean, DJ Chesse eta Haritzen eskutik, gaztetxean.

► **DJ Lagarren eskutik,** musika emanaldia izango da abenduaren 24an, gaztetxean, goizera arte.

► **DJ Mister Durangok** musika saioa eskainiko du abenduaren 25ean, gaztetxean, 19:00etan.

### BERGARA

► **Gura eta R Zetak** taldeen kontzertua izango da gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean.

► **Techno jaialdia** izango da gaur, egubakoitza, Jam aretoan, 00:00etan.

► **Gabonetako kontzertua** eskainiko dute Udal musika bandak, Bergarako Orkestra Sinfonikoak, Aritzeta abesbatzak eta Bergarako Orfeoiak bihar, zapatua, pilotalekuan, 22:00etan.

► **Látex, Los Tornillos eta A Remolke** taldeen saioa izango da bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

► **Loquillo y Trogloditas** taldearen kontzertua izango da bihar, zapatua, Jam aretoan, 23:00etan.

► **Kuraia eta Izaera** taldeen emanaldia izango da hilaren 26an, Jam aretoan, 22:00etan.

### ELORRIO

► ***Cascanueces* ballet klasiko emanaldia** egingo du L. Yakobson ballet eskolak hilaren 23an, astelehena, Arriola aretoan, 17:00ean.

### ESKORIATZA

► **Kañería 13, Klineks eta Jódete** taldeen kontzertua izango da gaur, egubakoitza, gaztetxean, 21:30ean. Kañeria 13 agertokietara bueltatzen da, urte erdi isilik egon ondoren.

► **Gabon kantak abesten** ibiliko dira herriko umeak Eguberri egunean. Plazan elkartuko dira, 12:00etan. Ordubete geroago, trikitixa eskolakoek kalejira egingo dute.

► **Anarik** kontzertua eskainiko du hilaren 27an, gaztetxean, 22:00etan.

### OÑATI

► **Txantxiku ikastolakoak** Gabon kantak abestera irtengo dira abenduaren 24an, Eguberri egunean. Eskolako patioan elkartuko dira, 12:00etan.

► **Easo abesbatza-kapera gregorianoak** musika emanaldia egingo du datorren egubakoitzean, hilaren 27an, Benediktarren elizan, 18:30ean.

## DEIAK

### ANTZUOLA

► **Euskal presoen aldeko** kale agerraldia izango da abenduaren 24an, martitzena, arratsaldetik. Abesbatzak kalejira egingo du.

► ***Uzarraga lehen, orain eta etorkizunean* hitzaldia** egingo du Iñigo Ramirez de Okariz-ek abenduaren 26an, eguena, Olaran etxean, 19:00etan.

### ARRASATE

► **ATECE elkarteak postua jarriko du** Santamas egunean, hilaren 22an, elkartearendako dirua lortzeko asmoz, eta ibarreko guztiak "elkartasun pintxoa" hartzera gonbidatzen dituzte.

► **Errege kabalgatan** parte hartu gura duten gazte eta helduek abenduaren 26an izango dute lehen entsegua, San Viator ikastetxean, 19:30ean. Antortxeroak, danbor jotzaileak, kantariak eta antolakuntza laguntzaileak behar dituzte.

### DEBAGOIENA

► **Zabor bilketa** 14:00etan egingo dute hilaren 24an eta 31an, Arrasaten, Eskoriatzan, Aretxabaletan eta Elgetan. Hori dela-eta, zaborrak 12:00etatik aurrera utzi beharko dira. Arrasaten bakarrik, hondakin handiak ere bota ahal izango dira.

### ESKORIATZA

► **Eguberri egunean** abestera irtengo direnek entsegu orokorra izango dute abenduaren 23an, astelehena, musika eskolan, 19:00etan.

► **Herriko kaleetan** abestu beharreko abestien entsegua izango da abenduaren 24an, nagusien egoitzan, 17:00etan.

### OÑATI

► **Laixanek antolatutako postal lehiaketako** sari banaketa egingo dute etzi, domeka, gaztelekuan, 18:00etan.

## JAIAK

### ARRASATE

► **Flamenko jaia** izango da gaur, egubakoitza, Vértice dantzalekuan, 22:00etan. Once Varas flamenko-fusio taldea, DJak, opari banaketa… izango dira.

► **Santo Tomas eguna dela-eta,** azoka, kale animazioa, herri bazkaria, erakusketa… izango dira etzi, domeka, Arrasateko kale ezagunenetan.

► ***Mamá Noel erotikoa*** ikuskizuna izango da abenduaren 24an, Frontoi tabernan, 01:30ean.

### BERGARA

► **Napar feria** izango da bihar, zapatua, San Antonioko plazatxoan. 10:30ean, azoka zabalduko dute; goizean zehar, kalejira, meza, Gabonetako abesti emanaldia, pintxoak eta beste hamaika ekitaldi izango dira. 14:30ean, jaia bukatzeko, bazkaria egingo dute.

### DEBAGOIENA

► **Olentzero etorriko da** Debagoieneko herrietara abenduaren 24an. Arrasaten, Zaldibartik irtengo da,



► JOLASAK

### UME ETA GAZTETXOENDAKO GABONETAKO JOLAS PARKEAK

Urtero bezala, Debagoieneko udal gehienek, ume eta gaztetxoei hamaika jolas egiteko aukera emateko asmoz, Gabonetako jolas parkeak antolatu dituzte. Gehienak abenduaren 26tik aurrera izango dira zabalik. Aretxabaletan, 26tik 28ra izango da zabalik jolas parkea; Bergaran, goiztiarrago izango da eta 23an zabalduko ditu ateak; gero, 26tik 28ra izango da Labegaraietako kiroldegira inguratzeko aukera. Eskoriatzan, 26tik 29ra iraungo du zabalik; Oñatin, berriz, 26an eta 27an izango dira antolatutako jolasak. Arrasaten, aldiz, urtarrilaren 2tik aurrera izango da jolas parkeaz gozatzeko aukera. Kasu guztietan, herri bakoitzeko kiroldegian izango dira jolas parkeok.

**Non:** Aretxabaletan, Arrasaten, Bergaran, Eskoriatzan eta Oñatin, kiroldegian. **Noiz:** abenduaren 26tik aurrera, egun osoz.




Sarrera guztiak zenbakituta daude!

Aukera ezazu gura duzun besaulkia!

STER CINES

BETI HOBETO GURE PANTAILA HANDIAN

asteazkena >> ikuslearen eguna >> 3,30 euro bakarrik!

www.stercines.es | Vitoria-Gasteiz [Lakua Zentrua]



## LATINDAR AMERIKAKO IPUIN KONTAKIZUNA

Kolonbiako, Latindar Amerika osoko eta beste herrialde batzuetako ipuinak kontatuko ditu Carlos Alberto Ortiz Patiño "Caoz" kontalari kolonbiarrak gaur, Eskoriatzako unibertsitateko aretoan, 22:30ean. Ondo pasatzeko, gogoetan egiteko eta istorio erromantikoak entzuteko aukera ederra!

18:00etan; Aramaion ere 18:00etan izango da topaketa; Antzuolan, goizean zehar ibiliko da ikastetxeetatik; Bergaran, San Martin plazan izango da, 19:00etan; Elgetara, 23an iritsiko da, plazara, 18:30ean; Eskoriatzan, 17:30ean, herriko plazan; Oñatin, Bidaurretatik abiatuko da, 18:00etan; eta Aretxabaletara, berriz, 18:30ean iritsiko da Olentzero.

### ELORRIO

► **Gabonetako jaialdia** izango da bihar, zapatua, Arriola aretoan, 17:00etan.

### OÑATI

► **Bizar Zuri** gaztelekuan izango da etzi, domeka, 18:30ean.

## ERAKUSKETAK

### ARETXABALETA

► **Justino Uribesalgoren** argazki erakusketa dago ikusgai udaletxe zaharrean, urtarrilaren 5era arte. 12:30etik 14:30era izango da zabalik.

### ARRASATE

► **San Clemente proiektuari laguntzeko** Debagoieneko margolarien lanen erakusketa eta salmenta dago Harresi aretoan, 18:00-20:00 astean zehar eta 12:00-14:00 eta 18:00-20:00etara zapatu eta jai egunetan. *Harreman* GKEak antolatu du.

► **Vasco Navarro trenaren** 75. urteurrena dela-eta, erakusketa dago ikusgai Monterron jauregian, abenduaren 29ra arte.

### BERGARA

► **Bergarako margolarien erakusketa** izango da abenduaren 20tik 29ra bitartean, kultura etxean, honako egun eta orduetan: astelehenetik egubakoitzera, 18:00-21:00; zapatu eta jaietan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

► **Idoia Elexpururen** margo erakusketa dago ikusgai Nahikari tabernan, abendu bukaerara arte.

### OÑATI

► **Herriko hamahiru artistaren lanen** erakusketa izango da ikusgai abenduaren 29ra arte, gaztelekuan.

## LEHIAKETAK

### EUSKAL HERRIA

► **Jokin Zaitegi Sariketa** deitu dute Arrasateko AEDk eta Elkar argitaletxeak. Literatura Nobel saria euskaratzeko 5.500 euroko beka emango dute. Imre Kertész-en *Sorstalanság* eleberria itzuli beharko da. Lana urtarrilaren 17a baino lehen bidali beharko da honako helbidera: AED elkartea; Pablo Uranga 4, behea; 20.500, Arrasate.

# Zinema

### ARRASATE

■ ALAI ZINEMA

***El viaje de Carol***
Egubakoitza: 19:00.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:20.
Astelehena: 19:00.

***800 balas***
Egubakoitza, zapatua eta domeka: 22:00.
Astelehena: 21:30.
Eguaztena: 22:00.
Eguena: 21:30.

***Lugares comunes***
Eguaztena: 17:00, 19:30.
Eguena: 19:00.

### BERGARA

■ NOVEDADES

***El último tren***
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30.

***Deseo***
Egubakoitza: 22:30.

***El imperio del fuego***
Zapatua eta domeka: 17:00.

***Olentzero, Gabonetako ipuina***
Abenduak 24 eta 25: 17:00.

***Insomnio***
Abenduak 25: 19:30, 22:15.

### OÑATI

■ SANTA ANA

***Miedo punto com***
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

***Chihiroren bidaia***
Zapatua eta domeka: 17:00.

***Ghost world***
Eguena, zine kluba: 20:00.

### EIBAR

■ UNZAGA

***Barco fantasma***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

■ RIALTO

***Historia de un beso***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

### GASTEIZ

■ GURIDI

***Muere otro día***
Egubakoitzetik astelehenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***El señor de los anillos: las dos torres***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 20:30, 00:00.
Domeka: 17:00, 20:30.

***El refugio del mal***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:30, 20:00, 22:30.

***Harry Potter y la cámara secreta***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 20:45, 23:45.
Domeka: 17:00, 20:45.

***Ocho mujeres***
Egubakoitza eta zapatua: 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 19:45, 22:30.

***Barco fantasma***
Egubakoitza: 17:30, 01:00.
Zapatua: 20:15, 22:30, 01:00.
Domeka: 20:15, 22:30.

***Santa Claus 2***
Egunero: 17:00.

***Happy times***
Egubakoitza eta zapatua: 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 19:45, 22:30.

■ MIKELDI ZINEMAK

***Balzac y la joven costurera china***
Egunero: 20:30, 22:45.
Abenduak 24: 17:30.

***Muere otro día***
Egunero: 20:30, 23:00.

***Las cuatro plumas***
Egunero: 17:30, 20:15, 23:00.
Abenduak 24: 17:30.

***Santa Claus 2***
Egunero: 16:30, 18:30.
Abenduak 24: 17:15.

***El señor de los anillos: las dos torres***
Egunero: 16:30, 19:45, 23:00.
Abenduak 24: 16:30.

***Barco fantasma***
Egunero: 17:15, 20:00.
Abenduak 24: 17:15.

***El caso Bourne***
Egunero: 22:45.

***El planeta del tesoro***
Egunero: 16:30, 18:30.
Abenduak 24: 17:30.

***Harry Potter y la cámara secreta***
Egunero: 16:30, 19:45, 23:00.
Abenduak 24: 16:30.

***El pianista***
Egunero: 17:15, 20:00, 22:45.
Abenduak 24: 17:15.

***Una pandilla de altura***
Egunero: 17:15, 20:00, 22:45.
Abenduak 24: 17:15.

***El refugio del mal***
Egunero: 17:30, 20:15, 23:00.
Abenduak 24: 17:30.

Eguena, ikuslearen eguna.

■ FLORIDA-GURIDI

***Mi gran boda griega***
Egubakoitza: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Zapatua: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30.

***Una relación inesperada***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Zapatua: 12:30, 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domeka: 12:30, 17:30, 20:00, 22:30.

***Al límite de la verdad***
Egubakoitza: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Zapatua: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30.

***Dragon hill***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Zapatua: 12:30, 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domeka: 12:30, 17:30, 20:00, 22:30.

***Kamchatka***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Zapatua: 12:30, 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domeka: 12:30, 17:30, 20:00, 22:30.

***Los lunes al sol***
Egubakoitza: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Zapatua: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30.

***Olentzero***
Egunero: 12:30, 17:00, 18:30.

***Last order***
Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 22:30, 01:00.
Domeka: 20:00, 22:30.

■ STER ZINEMAK

***El pianista***
Egubakoitza: 19:20, 22:15, 01:10.
Zapatua: 16:25, 19:20, 22:15, 01:10.
Domeka: 16:25, 19:20, 22:15.

***Pianojolea***
Egubakoitza: 19:20, 01:10.
Zapatua: 16:25, 19:20, 01:10.
Domeka: 16:25, 19:20.

***El planeta del tesoro***
Egubakoitza: 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.
Zapatua: 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.
Domeka: 16:20, 18:20, 20:20, 22:20.

***Una pandilla de altura***
Egubakoitza: 18:15, 20:25, 22:35, 00:45.
Zapatua: 16:05, 18:15, 20:25, 22:35, 00:45.
Domeka: 16:05, 18:15, 20:25, 22:35.

***Al límite de la verdad***
Egubakoitza: 18:20, 20:30, 22:35, 00:40.
Zapatua: 16:10, 18:20, 20:30, 22:35, 00:40.
Domeka: 16:10, 18:20, 20:30, 22:35.

***Harry Potter y la cámara secreta***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:35, 00:00.
Domeka: 17:30, 20:35.

***Santa Claus 2***
Egubakoitza: 18:25, 20:35, 22:45, 00:55.
Zapatua: 16:15, 18:25, 20:35, 22:45, 00:55.
Domeka: 16:15, 18:25, 20:35, 22:45.

***Barco fantasma***
Egubakoitza: 18:25, 20:20, 22:20, 00:15.
Zapatua: 16:30, 18:25, 20:20, 22:20, 00:15.
Domeka: 16:30, 18:25, 20:20, 22:20.

***Muere otro día***
Egubakoitza eta zapatua: 17:10, 19:50, 22:30, 01:10.
Domeka: 17:10, 19:50, 22:30.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ YELMO CINEPLEX

***Muere otro día***
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 18:50, 21:35, 00:15.
Domeka: 11:50, 16:15, 18:50, 21:35.

***El caso Bourne***
Egubakoitza eta zapatua: 19:55, 22:20, 00:40.
Domeka: 19:55, 22:20.

***El señor de los anillos: las dos torres***
Egubakoitza: 16:00, 17:00, 18:45, 19:30, 20:30, 23:00, 00:00.
Zapatua: 16:00, 17:00, 19:30, 20:30, 23:00, 00:00.
Domeka: 11:30, 15:30, 17:00, 18:45, 20:30, 22:00.

***Las cuatro plumas***
Egubakoitza eta zapatua: 15:55, 18:30, 21:15, 23:45.
Domeka: 11:00, 15:55, 18:30, 21:15.

***Una casa de locos***
Egubakoitza eta zapatua: 21:50, 00:15.
Domeka: 21:50.

***El planeta del tesoro***
Egubakoitza eta zapatua: 15:45, 17:50, 19:50.
Domeka: 12:00, 15:45, 17:50, 19:50.

***Mi gran boda griega***
Egubakoitza eta zapatua: 15:55, 17:35, 19:40, 21:55, 23:55.
Domeka: 11:50, 15:55, 17:35, 19:40, 21:55.

***Harry Potter y la cámara secreta***
Egubakoitza eta zapatua: 11:30, 16:30, 19:35, 22:45.
Domeka: 15:35, 18:40, 21:45.

***Al límite de la verdad***
Egubakoitza eta zapatua: 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.
Domeka: 11:45, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10.

***Santa Claus 2***
Egubakoitza eta zapatua: 15:40, 17:40.
Domeka: 11:20, 15:40, 17:40.

***Barco fantasma***
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:20.
Domeka: 11:55, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15.

***800 balas***
Egubakoitza: 11:05, 15:30, 18:00.

***El esmoquin***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 19:25, 21:30, 23:30.
Domeka: 17:30, 19:25, 21:30.

***Una pandilla de altura***
Egubakoitza eta zapatua: 15:55, 17:45, 19:45, 21:45, 23:45.
Domeka: 11:10, 15:55, 17:45, 19:45, 21:45.

***La edad de hielo***
Egubakoitza eta zapatua: 15:35.
Domeka: 12:00, 15:35.

***El dragón rojo***
Egubakoitza eta zapatua: 15:25, 17:50, 20:15.
Domeka: 11:15, 15:25, 22:05.

Astelehena, ikuslearen eguna.

***Los lunes al sol: ●●●●● / Ghost world: ●●●●● / IInsomnio: ●●●● / Lugares comunes: ●●●● / Ocho mujeres: ●●● / El dragón rojo: ●●● / La edad de hielo: ●●● / 800 balas: ●●***

TXARRA:● ESKASA:●● BALEKOA:●●● ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

## KRITIKA

### EL PIANISTA

PUNTUAZIOA: ●●●●

**ZUZENDARIA:** Roman Polanski.
**AKTOREAK:** Adrien Brody, Thomas Krestschman.

*El pianista del gueto de Varsovia* Wladyslaw Szpilman piano jotzaile poloniarrak idatzitako liburua da. Liburuak kronika eta egunkaria bateratzen ditu. Naziek Varsovia inbaditu zuten momentutik guda bukatzen den momentura arte doa, eta pertsonaia bakar baten gora beherez baliatuz (egunkaria), herrialde oso batek jasandako hondamendia islatzen digu (kronika). Liburua, 1999. urtean berrargitaratu bada ere, 1946. urtean idatzitakoa da. Honetan, idazleak erabiltzen duen tonua hotza da eta ez du inoiz bere iritzia ematen. Izandako gertakizun krudel guztiak azaltzen ditu, baina, gero, irakurleari dagokio irakurketa horren balorazioa egitea.

Orain, Roman Polanski zuzendariak, Szpilmanen istorioa film bihurtu du, eta, gainera, liburuaren izpirituari eutsi dio fideltasunez. Filmak, goian aipatutako ezaugarriak errepikatzen baditu ere, ematen duena baino lan ezohiko eta arriskutsuagoa da. Ekoizpen handien ikusgarritasunetik ihes egin nahi du: aktoreak ez dira oso ezagunak; irudien koloreak lausotuak eta baziak dira; irudiak, latzak eta laburrak; musikari baten bizitza izan arren, filmean agertzen den musika oso murriztua dago, momentu luze askotan ez da musikarik entzuten (ez du elementu melodramatiko bezala gehiegi erabili nahi); sarritan liburuetan oinarritutako istorioek off ahotsa erabiltzen dute gertakizunak zehazteko, baina *El pianista*n ez da halakorik gertatzen. Noizbehinka istorioaren momentuaren data agertzen zaigu, baina, gertakizun historikoen datuak modu mugatuan eta partzialean ikusiko eta entzungo ditugu (protagonistari heltzen zaizkion moduan). Ikusten ditugun gauza guztiek protagonistaren ikuspuntuari eusten diote.



Polanskik istorioari amets gaizto kutsua eta klaustrofobia giroa eman nahi dizkio. Filmak ondo bizi den pertsona bat arratoi setiatu bat bezala bizitzera eramango duen prozesua kontatzen digu: pertsonaiaren estuasunak, babes falta eta sentsazioak (beldurra, gosea, bakardadea) ezin hobeto islatzen dizkigu. Horrela, filma aurrera doan neurrian, gero eta itxiagoa eta gero eta ederragoa da.

ANTONIO ZABALA

SARE İNMO f3 inmobiliaria

Erdiko kalea 26
ARRASATE
943 79 12 79

**ETXEBIZITZAK**

**ARRASATE**
- 98 m², 4 logela, oso eguzkitsua eta garajearekin.
- 110 m². Hiru logela, bainugela bi, egongela eta ganbara. Oso ederra. Oso eguzkitsua eta duela urtebete berritua.
- 85 m². Egongela, hiru logela, bainugela bi, garajea eta ganbara. Oso eguzkitsua. Bista ederrak.

**BERGARA**
- 75 m², eguzkitsua eta 3.500m²-ko lursail komunitarioarekin: parkinga, txokoa...Prezioa: 126.212 euro/ 21.000.000 pta.
- 51 m², egongela, 3 logela, sukaldea, bainugela eta ganbara. 16.000.000 pta.

**LOKALAK**
- **Arrasate**: Ferrerias kalean 201 m²-ko lokala salgai. Errentan hartzeko aukera.
- **Arrasate**: Altamiran 98 m² salgai. Erakusleihoa dauka eta oso ondo dago. 10.000.000 pta.
- **Bergara**: 230 m²-ko lokal industriala salgai. Lehenengo solairuan dago eta 1.000 kiloko karga-jasogailua dauka. Prezioa: 12.500.000 Pta.
- **Oñati**: 40 m2-ko lokala errentan ematen da. Erakusleihoa dauka.



OROSTI INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

**BERGARA / Etxebizitzak salgai**
- Martoko. 65 m². Berritzeko.
- Irizar. 85 m².
- Elosu. 140 x 4 m².
- Telesforo Aranzadi. 72 m². Berritzeko.

**BERGARA / Tabernak salgai eta errentan**
- Jardunean dagoen taberna. Hornituta. Aukera paregabea.
- Jardunean dagoen sagardotegia.
- Jatetxe-taberna berritzeko.

**BERGARA / Lokalak salgai eta errentan**

**BASERRIAK**
- Angiozar: 200 m² x 3 solairu, 38.000 m²-ko lursaila, oso ondo kokatua.
- Osintxu, Gabiria, Berastegi (baserria eta borda), Mutiloa, Elosu, Zegama, Asteasu.

**Etxebizitzak eta lokalak salgai edo alokagai behar ditugu.**



OÑATI

**ZUBILLAGAN 800 M²-KO INDUSTRIA PABILIOIA SALGAI**
**943 71 60 91**



ARETXABALETA

**TABERNA, HARATEGIA ETA PLATER KONBINATUAK DITUEN LOKALA SALGAI.**
**943 77 03 08**



ELGETA

**PANADEROKUA JATETXEA ERRENTAN EMATEN DA.**

**943 76 82 73**



TXARRANTXA JATETXEA (BERGARA)

Txarrantxa jatetxeak zera jakinarazi nahi die bezeroei: **urtarriletik aurrera, igandeetan itxita egongo da jatetxea, jaunartze eta bataio ospakizunetan izan ezik.** Zorionak eta Urteberri on, guztioi.



ARETXABALETA

**ARETXABALETAKO ERDIALDEAN, GARAJE ITXIAK SALGAI. BERRIAK.**
**609 43 05 39**


# Iragarki sailkatuak


**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**


Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 76 92 71**

**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 9 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.**

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Etxebizitza salgai. 74 m². Berogailua, hiru logela, sukaldea, bainugela eta bi balkoi. Guztiak kanpo aldera ematen du. 655 72 63 70.

**Antzuola.** Etxebizitza salgai. 943 76 65 19.

**Antzuolan** 87 m2ko duplexa salgai. Hornitu berria. Iñigo. 943 78 70 78.

**Arrasate.** Herri erdialdean. Berria. Hiru logela, saloia, bainugela bi, trastelekua eta igogailua. 943 79 99 89.

**Bergara.** Zubiaurren etxebizitza saltzen da. Hiru logela eta ganbara. 16 milioi pezeta. 678 21 26 57.

**Soria.** Zaharberritzea behar duen etxebizitza salgai Pinares inguruan. 686 05 74 56 edo 975 27 10 47.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Erdialdean dago, eta igogailua dauka. Altzairuz jantzita. 943 79 60 88.

**Arrasate.** Erdialdean etxebizitza ematen da errentan urtarriletik aurrera. 21:00etatik aurrera. 943 79 18 47.

**Arrasate.** Erdialdean etxebizitza errentan ematen dut. Berogailua du. 676 71 97 09.

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Logela ematen da errentan. Sukaldea erabiltzeko aukera. Langileendako aproposa. 943 79 05 26.

**Bergara.** Logela bat hartuko nuke errentan, sukaldea eta egongela erabiltzeko aukerarekin. 650 89 12 20.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Antzuolan** garajea salgai. 670 49 87 40.

**Aretxabaleta.** Araba etorbideko 27an garaje itxia salgai. 20 m². 943 79 69 83.

**Bergara.** Alkabieta kalean garajea salgai. Prezio interesgarria. 943 76 37 70.

**Bergara.** Garaje itxia salgai Ozaetan. 943 76 00 12 edo 617 25 04 13.

**Eskoriatza.** Garaje itxia salgai Eskoriatzako Hidalga kalean. 943 71 43 90.

### 202. EROSI

**Arrasate.** Garaje itxia erosiko nuke Kontzezinoko garaje zaharretan. 20m² ingurukoa. Eguerdian edo gauean deitu. 943 77 16 01.


DEBAGOIENA

**DEBAGOIENERAKO KORRIKA ARDURADUNA BEHAR DUGU. AUTOA EZINBESTEKOA DA.**
**943 77 03 69**
**943 76 05 18**


### 203. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Santa Kurtz kalean garajea ematen dut errentan. 943 79 16 24.

**Arrasate.** Garajea ematen da errentan Kontzezino kalean. 658 72 09 87.

**Arrasate.** Garajea ematen dut errentan Roneoko etxeetan. 16,5 m². Aitor. 699 49 14 38.

**Oñati.** Garaje bat ematen da errentan Jose Moiua kalean. 659 89 40 85.

## 3/ LOKALAK

### 301. SALDU

**Arrasate.** Brushing ile apaindegia saltzen dut. 609 48 99 58.

### 304. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Mutil gazte batzuek lokala errentan hartu gura dute. 652 77 89 73.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Pertsona bat behar dut etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Deitu 21:00etatik 23:00etara bitartean. 943 79 82 78.


OÑATI

**PERTSONA BEHAR DA KAFETEGI BATEN LAN EGITEKO.**
**943 78 30 59**


**Bergara.** Emakume euskalduna behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Gauez deitu. 943 76 44 54.

**Norwich** (Ingalaterra). Au-pair (umeak zaintzeko pertsona bat) bat behar da urtarriletik aurrera. Adin nagusikoa. 943 76 40 73 edo 615 74 23 51.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Neska gertu edozein lan egiteko. 635 70 31 01.

**Arrasate.** Neska gertu etxeko lanak egiteko. 943 79 88 03.

**Arrasate.** Emakume batek lan egingo luke etxeko lanak egiten eta umeak zein pertsona nagusiak zaintzen. 659 82 75 18.

**Arrasate.** Esperientziadun emakumeak pertsona nagusiak zainduko lituzke. Mari Carmen. 943 79 68 77.

**Bergara.** Emakume bat lan egiteko gertu. (Felisa). 600 01 82 76.

**Emakume bat** etxeko lanak egiteko gertu, Bergaran edo inguruko herrietan. 686 92 55 57.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Arrasate.** Gitarrako oinarrizko eskolak jasoko genituzke. Hiru lagun gara. Oihana eta Maialen. 943 79 98 92 edo 943 79 59 77.

**Euskara.** DBHko 4. mailako euskarazko eskolak hartuko nituzke. 943 79 16 24.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Derbi Senda** motoa salgai. 2002koa. Ondo dago. 100 euroko kaskoa eta giltzarrapoa. Prezio interesgarria. 943 76 46 78 edo 647 58 15 79.

**Fiat Punto** autoa salgai. 9.500 Km, SS-BG matrikula. Urte eta erdi du. 943 79 47 27.

**Ford Probe 24 v** Salgai. 1993. urtean erosia . 110.000 km. 4.500 euro. 943 76 23 94 edo 651 70 00 96.

**Ford** Escort RS 2.0 16v 150 ZP salgai. 605 73 86 77.

**Kawasaki** KX 80 motoa salgai. Krosekoa. Ondo dago. Gauez deitu. 943 79 15 50.

**Opel Sintra** 2,2 16 v GLS monobolumena salgai. 943 78 17 71.

**Peugeot** 205 D 1.8 autoa salgai. Aire girotua, itxitura zentralizatua, kristal-igogailu mekanikoa. Direkzio lagundua. 1997koa. 625 67 36 46 edo 625 67 26 13.

**Renault 21** TI. 2.000 cm3, 120 ZP eta 155.000 Km. Matrikula: SS-AC. Atzeko bola dauka. IAT urrian pasatuta. Estrak. Prezioa: 1.800 euro. 943 79 89 35.

### 602. EROSI

**VW** Transporter edo California furgoneta erosiko nuke. 678 53 12 25.


LOROA SALGAI

**LOROA SALGAI EZIN ZAINTZEAGATIK. OSO PREZIO ONEAN. URTE 2 DITU.**
**943 79 10 05**


## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Boxer txakurra** salgai. 18 hilabete ditu. Txiparekin. Txertoa hartuta. 200 euro. 636 65 25 70.

**Rottweiler** arrazako txakurra salgai. Pedigriarekin. Kumaldi bikaina. 943 79 90 43.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Bergara.** Autoarendako barrak eta eski-eramaileak salgai. Berri-berriak. 60 euro. 943 76 57 77.

**Errepideko bizikleta** salgai. Ondo dago. Koadroa Bugno markakoa da (neurria: 56). Grupo shimano 600. Pedal automatikoak. Sidi zapatak opari (neurria: 42). 390 euro. Deitu 18:00etatik 22:00etara. Xabi. 946 58 28 64.

**Gelak bereizteko manparak** eta sabai desmuntagarria salgai. Prezio onean. 943 78 07 46.

**Matematikako** grafikoak egiten dituen kalkulagailu zientifikoa salgai. Casio FX 7500G. Pantaila du grafikoak ikusteko. 656 75 76 98.

### 806. GALDU

**Bergara.** Betaurrekoak galdu nituen abenduaren 1ean. Graduatuta daude. Eskertuko da. 943 76 37 82.

**Bergara.** Domeka gauean belarritako bat galdu nuen. Perla gorrixkadun zintzilikarioa. 943 76 01 62.

**Bergara.** Motxila galdu nuen astelehenean Espoloian, kirol arroparekin. 943 76 06 17.

**Urrezko belarritakoa** galdu dut Arrasaten, Seber Altube inguruan. Suge forma du. Balio sentimental handia. Sarituko da. 658 72 09 87.

### 808. BESTELAKOAK

**Erosketa.** Telebista, DVDa edo Home Zinema prezio onean erosi gura baduzu, berba egin gurekin. Elkarrekin prezio merkeagoak lortzen ahaleginduko gara. 18:00etatik aurrera. Abenduaren 20a baino lehenago deitu kanpainan sartzeko. 647 44 30 58.


NEPTUNO

**AKUARIOFILIA DENDA BERRIA**
**ITSAS AKUARIOAK ETA TROPIKALAK**

Serafin Ajuria 2, behea • GASTEIZ
(Adriano VI.a kalearen izkinan dago)
Tel.: 945 22 00 21 / ggv@euskalnet.net

**OSAGARRIAK, LANDAREAK ETA UR HOTZEKO ARRAINAK**

10:00etatik 13:30era / 16:30etik 21:00etara.
Astelehen goizetan itxita.





Garbi S.L.

**PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.**

943 33 18 37 (HERNANI)
649 84 67 09 (BERGARA)



**IRIZAR ESTANKOA**

**GABONETAKO LOTERIAren sarixaren zain gauz eta "NIÑO"-ko LOTERIAkin bete-betian gabitz**

Enkarguak hartzen dogu: dezimuak, 20 euro, "Sobretxuak", 50 euro. (Gaiñera, oinguan, hiru botatakuekin...)

**ZORTE ON eta URTE OPAROA IZAN!**

943 78 00 15 • **OÑATI**

## AIPAGARRI

### Alejandro Mujika

ANTZUOLA



Abenduaren 7an beterano, emakume eta gazteendako Estatu mailako ehiza txapelketa jokatu zuten Cordobako Hornachuelos herrian. Alejandro Mujikak irabazi zuen beterano mailako txapelketa, Sasi txakurrarekin. Dena dela, pena handia dauka ezin izan zuelako piezarik ehizatu.

### Jesus Mari Lazkano

BERGARA



Eguaztenean itzuli zen tranbia Bilboko kaleetara. Tranbiaren funtzioaz gain, museo ibiltariaren funtzioa ere beteko du tranbiak; izan ere, zazpi artistaren lanak jarri dituzte bagoietan. Proiektu horretarako aukeratu zuten artistetako bat dugu Jesus Mari Lazkano bergararra.

### Andoni Elortza

ELGETA



Arrasateko Dantza Sueltoko txapelketa irabazi zuen Andoni Elortzak, Hiart Bolinagarekin batera, joan zen domekan. Bikote moduan txapela eraman zuten arren, sari berezi bat ere eman zioten Andoniri: mutiko onenaren saria eman zioten, hain zuzen ere.

## JAIOTAKOAK

**Oier Iturricastillo Telleria.** Oñatin, abenduaren 1ean.

**Garazi Belaustegi Eraso.** Aretxabaletan, abenduaren 10ean.

**Igor Errasti Agirrebeitia.** Arrasaten, abenduaren 11n.

**Ane Alonso Belategi.** Eskoriatzan, abenduaren 11n.

**Iker Egizabal Astaburuaga.** Arrasaten, abenduaren 17an.

## HILDAKOAK

**Enriqueta Peralta Carrasco.** Oñatin, abenduaren 14an. 50 urte.

**Maria Anduiza Telletxea.** Arrasaten, abenduaren 14an. 79 urte.

**Alberto Urrutia Otxoa.** Arrasaten, abenduaren 15ean. 74 urte.

**Juan Jose Rabadán Lorenzo.** Arrasaten, 15ean. 74 urte.

**Rosario Arana Arregi.** Arrasaten, abenduaren 15ean. 90 urte.

**Rufina Astigarraga Garate.** Arrasaten, abenduaren 16an. 86 urte.

**Angela Iriondo Gezala.** Arrasaten, abenduaren 16an. 84 urte.

**Iñaki Arrazola Zulueta.** Arrasaten, abenduaren 16an. 71 urte.

**Juan García Delgado.** Oñatin, abenduaren 17an. 70 urte.

**Josefa Juaristi Juaristi.** Bergaran, abenduaren 17an. 88 urte.

**Dorleta Biain Bilbao.** Bergaran, abenduaren 18an. 44 urte.



**Maria Biskert Fernández**
Bergara • Abenduaren 17a • 2,670 Kg. Gurasoak: **Kepa Biskert** (Eibar) eta **Marta Fernández** (Bergara). Argazkian, Maria, aita Keparen besoetan.



**Maria Martínez Loiti**
Bergara • Abenduaren 16a • 3,480 Kg. Gurasoak: **Iñaki Martínez** (Bergara) eta **Jaione Loiti** (Bergara). Argazkian, Iñaki aitarekin ageri da Maria.



**Iker Egizabal Astaburuaga**
Arrasate • Abenduaren 17a • 2,300 Kg. **Gurasoak: Luis Miguel Egizabal** (Arrasate) eta **Mari Jose Astaburuaga** (Arrasate). Argazkian, umea Maria Jose amarekin.



**Jokin Oruna Ruiz**
Arrasate • Abenduaren 17a • 3,175 Kg. Gurasoak: **Ainhoa Ruiz** (Arrasate) eta **Angel Oruna** (Arrasate). Argazkian, **Danel** anaiarekin eta Angel aitarekin.

### ESKER ONA

## Alberto Urrutia Otxoa

Juanita Ortubairen alarguna



**Arrasate**n hil zen
2002ko abenduaren 15ean,
74 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.*

### URTEURRENA

## Juan Pablo Garai Villar



Bigarren urteurreneko meza astelehenean, abenduaren 23an, 19:00etan, **Arrasate**ko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

### IV. URTEURRENA

## Lorea Astondoa Altuna

1975-10-7 / 1998-12-21



Egunean zehar eguzkiak
berotzen duen moduan
gure etxe eta bizitzak, gure oroimenetan
zu beti izango zara disdiratsu dagoen
argi goxo eta beroa.
Laster arte.

ARAMAIXOKO LAGUNAK

### IV. URTEURRENA

## Lorea Astondoa Altuna



Laugarren urteurreneko meza domekan, abenduaren 22an, 13:00etan, **Aramaio**ko Barajuen auzoko Andra Mariaren elizan

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

### URTEURRENA

## Miren Zubizarreta Bergaretxe



Bigarren urteurreneko meza astelehenean, abenduaren 23an, 19:00etan, **Arrasate**ko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

*"Atzera bueltetaik ez dau baina zaindu zaiteze eta ez zoratu. Argi gero iñoi kulpaik botaten. Bakien noie. Agur."*

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

KANPAZAR
ERRETEGIA

Astelehenetik ostiralera
**EGUNEKO MENUAK**

Espezialitateak:
**okela eta arraina parrillan**

**NEGUKO ORDUTEGIA**
Astelehenetan, astearteetan, eta asteazkenetan:
07:00etatik 19:00etara
Ostegunetan eta ostiraletan:
07:00etatik 23:00etara
Larunbatetan eta igandeetan:
10:00etatik 23:00etara
Abenduaren 25etik urtarrilaren 6ra arte (biak barne) itxita

**94 658 29 12 • 669 30 26 86 / Kanpazar gaina / ELORRIO**




# euskara da oparirik onena

**Zabal itzazu mundura jatorrizko bertsioan**

Hemen duzu zure ametsetako oparia, hegoaldeko itsasoak zeharkatzeko, altxorrak aurkitzeko, bizitzeko, ederki pasatzeko, familian gozatzeko, lagunartean aritzeko, hemen duzu bizitza osorako oparia.

100 produktutik gora dituzu aukeran. Bideorik onenak, mahai jokoak, bideo-jokoak eta CD-ROMak dituzu zain. Alaiak, entretenigarriak, zirraragarriak eta euskaraz!

Bete ezazu txartel hau eta bidali aldizkariaren helbidera **-Goiena. Nafarroa etorbidea, 2. 20500 Arrasate-**
Bideoak, bideojokoak, mahai jokoak, haurrentzako puzzleak ... ditugu zuri oparitzeko.

Izen-abizenak ______

Helbidea ______ P.K ______

Herria ______ Tel. ______

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

euskaraz? bai.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Euskera, Juventud y Deportes

# Arrasateko Gazteen Kontseiluaren
# LOGOTIPOA AUKERATZEKO LEHIAKETA

**Parte-hartzaileak:** Arrasaten bizi, lan egin edo/eta ikasten duten gazteak izango dira.

Hiru kategoriatan banatuko dira parte-hartzaileak:
A). Kategoria: 5 -12 urte bitarteko gaztetxoak.
B). Kategoria: 13-17 urte bitarteko gazteak.
D). Kategoria: 18-30 urte bitarteko gazteak.

**Gaia:** Hainbat lagunek egindako lan eskergaren emaitza da Gazteen Kontseilua, herri erakundeekin solaskide izango den gazteen elkarrekintzarako plataforma bat, alegia. Edozein gaztek ideiak, proposamen eta zalantzak aurkezteko aukera izango du hor.

**Modalitatea:** Lanak zuri-beltzean zein koloreetan izan daitezke. Teknika librea izango da.

**Sariak:** Hiru sari banatuko dira, kategoria bakoitzean bana:

A). Kategoria: jostailu sorta.
B). Kategoria: kirol material sorta.
D). Kategoria: 750 euro

**Lanen Berezitasunak**

Formatua:
**a eta b kategorietan:** logotipoa folio tamainako kartoi mehe zuri baten aurkeztu beharko da.
**d kategorian:** logotipoaren tamaina gutxienez A3 eta gehienez A1 izango da.

Kontuan izanik logotipoak edozein tamainatan ulergarria izan behar duela, nahikoa izango da kopia bat bidaltzea.

Logotipoan **Arrasateko Gazteen Kontseilua** leloa azaldu edo aipatu behar da.

Originalak, inoiz sarituak, argitaratu edo emititu gabeak izango dira lanak.

Helbide honetara bidali behar dira lanak:

**Udaleko Gazteentzako Informazio Zerbitzua**
Biteri etorbidea 3 • 20500 ARRASATE
Tel: 943 77 00 65
e-mail: gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

Aurkezteko epea: lanak aurkezteko epea 2003ko urtarrilaren 31n amaituko da.




ARRASATEKO UDALA

**Gazte Saila**

## HITZGEZIDUNAK

Luma



Zezen zikiratu · * Izena · Ezten · Tenore · Desenkusa · Barre xume · Astroa · * Deitura · Atso bihurtu · Kontsonantea · Suzko mendiak · Niri, du · Infusio mota · Kontsonantea · Albisteak · Apal · Arra gurasoekiko · Baldintzetan · Bokala · Euskaraz eta kitto! · Iodoa · Une oro · Guztia · Nori atzizkia · Erdi, hitz elkarketan · Modua · Aezkoako · Radona · Jarduera fisikoak · Jardun · Potasioa · Portu · Kasik · Ezagutzen duzu · Kontsonantea · Bokala · Errep., gorotza · Uranioa · Bokala

## BILABILA7





## UMOREGIROAN/ Pedro Zelaia

Pedro Zelaiak argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

**AREN BERBIAK INDARRIK EZ**

Punteret oso famatua zan Eibarren. Egun baten, itxura danez, mingaiñak igez egin zetsan eta geiegitxo esan zeban lagun bategaitxik. Etorri jako au eta diñotsa:

- I, zer jardun dok esaten neregaitxik.

- Tira, Bixente, —esaten detsa Urlixak—, ez adi ola jarri. Ik estakik ala nere berbiak eztaukala indarrik.

**EMON AL BANITXUKEK**

Ondo zagoz Kaien! —esan zetsan lagun batek—. Gogor ikusten zitxut.

- Gogor bai azurretatik!
- Zenbat urte daukazuz?
- Irurogeitamar.
- Eztozuz emoten.
- Ai, emon al banitxuke, asko gitxiagokin geratuko nintzakek!

**KAIETANO PESKAN**

Juan zan Kaitxano Matxari errekara aingira billa. Jaso ditxu frakok, atara dau poltsikotik tenadorra, eta, ur txikietan sartuta, badabil aingira billa. Onetan ikusi dau arraiña, makurtu da beriala tenedora sartzeko eta zast jausi jako erlojua uretara.

An zeguan ezagun batek diñotsa:

- Kaitxano, erlojua jausi jatsu uretara!

Ta kaietanok:

- Orrek ez najok arduratzen. Erlojuak etxeztak iges egingo; aingiriak bai.

## EZETZASMATU!

Estepan Plazaola




### Zenbat harategi dira Debagoienean Eusko Label kalitatean sartuta daudenak?

1998. urtean sortu zuen Eusko Jaurlaritzak Kalitatea Fundazioa nekazaritzako euskal produktuak bultzatzeko asmoarekin. Gaztira, hogei produktu inguru dira une honetan label ezaugarria dutenak. Horien artean ezagunenetakoa, dudarik barik, ganadu-okela dugu. Asmatuko ote zenuke Debagoieneko zenbat harategitan saltzen den labeldun okela hori?

• 20 • 25
•15 • 30

**Erantzun zuzena:** 15 harategitan.

## SOLUZIOAK





## ASTEKOHOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkartea

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*

Oso aste aproposa kontratuak sinatzeko, negozioak egiteko eta akordioak egiteko; betiere, jendearekin kolaboratzeko asmoa baldin badaukazu.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*

Amodio kontuetan ez zabiltza batere fin azkenaldian. Bikotekidearekin duzun harremanak ez zaitu asetzen, eta damutuko zaizun zerbait egin dezakezu. Hausnar ezazu, zure egoeraren zergatia aurkitzeko. Buruko min handien eraginez, ohean egon beharko duzu hainbat egunez.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*

Proiektuek eta asmoek aurrera egingo dute eta bete egingo dira. Horrek segurtasun eta konfiantza handia emango dizu, eta oso ondo sentituko zara zure buruarekin. Oraingo astea zure sorkuntza agerian jartzeko aproposa izango da, plazerrezko jarduerak egiteko.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*

Mugimendu eta esfortzu handia zure proiektuak aurrera ateratzeko orduan, batez ere, lanean. Pazientzia eduki; izan ere, pazientziarik ez badaukazu, huts egiteren bat edo beste egin dezakezu, eta damutuko zaizu.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*

Oso aste atsegina eta alaia pasatuko duzu. Aisialdirako denbora luzea izango duzu, lagunekin disfrutatzeko. Aprobetxa ezazu astea, eta lagun batzuekin zenituen arazoak konpon itzazu.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*

Deprimitzeko eta dena ilun ikusteko joera daukazu. Hori dela eta, ez zara buru-belarri sartuko zure proiektuetan; alderantziz, geldi egoteko joerarantz egingo duzu. Saia zaitez positiboago izaten.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*

Oso une egokia edozein motatako jarduerak, proiektuak, eta abar egiteko; izan ere, hasten duzuna ondo irteteko aukera guztiak dituzu. Hortaz, ekin lanari eta ez zaitez alferra izan.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*

Kontraturen bat sinatzeko edo zerbait negoziatzeko asmoa baldin bazenuen, ahal baduzu alde batera utzi, momentuz. Ez da une egokia horretarako. Bizitzaren balio batzuk aldatzea pentsatuko duzu; izan ere, balio batzuek ez dizute balio.

**SAGITTARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*

Espero zenituen aldaketak izango dituzu lanean, betiere, horiek lortzeko argi ibiltzen baldin bazara; izan ere, zure alferkeriak eta beste mundu baten egoteko joerak aldaketok izatea galarazi egin diezazukete.

**CAPRICORNUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*

Arazoak familiartean. Haienganako dedikazio txikia aurpegiratuko dizute, baita oso hotza zarela ere. Bestalde, zure jarrera lehiakorra dela eta, lanekoekin arazoak izango dituzu.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*

Zure ingurukoekin diskutitu egingo duzu, gai batzuetan desadostasunak dituzue-eta. Eutsi zure jarrerari, eta ez utzi besteoi zure bizitza gidatzen; denboraren poderioz argi geratuko da zu zenbiltzala zuzen.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*

Ez fidatu besteek esaten dizutenarekin, eta egin kasu, konfiantza osoarekin, zure intuizioei, zuzen ibiliko zara-eta. Lanena aldaketak izango dituzu; hasiera baten, aldaketok ez dira zure gustukoak izango, baina epe luzera oso ondo moldatuko zara.

GIPUZKOAKO
ASTROLOGI ELKARTEA

## TELEBERRIAK

### Urte hasieran emisio frekuentzia aldatuko du TVE1ek

Orain arte, TVE1ek 8. kanalaren bitartez emititzen zuen, VHFn. Europako agindu baten eraginez, urte hasieratik aurrera, TVE1ek 43. kanalaren bitartez emitituko du. Izan ere, laster, VHFko 8. kanal hori beste zerbitzu batzuk emateko erabiliko dute; adibidez, irrati digitala sartzeko.

TVE1en kanal aldaketa horrek telebistako seinalea Muruko errepikagailutik hartzen duten herrietan eragingo du: hau da, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzagan.

### Arazoak Antzuolan A3 ikusteko

Azken hilabeteetan, frekuentzia aldaketa zela eta, 63. eta 28. kanaletik emititzen zuen A3k Antzuolan. Aurreko astetik, ordea, 28. kanaletik bakarrik emititzen du. Dirudienez, 28. kanalaren seinalea beste kanal bateko seinaleak oztopatzen du. Horrek seinalea Antzuolara behar den bezala iristea eragozten du eta ez da telebista kate hori ikusten.

### 'Date el bote' eta 'Betizu' irabazle Iparragirre sarietan

Artium Arte Garaikidearen Museoan banatu zituzten, martitzenean, aurtengo Iparragirre sariak. *Betizu* umeen saioa eta *Date El Bote* lehiaketa ETBn, *Babel* irratsaioa Euskadi Irratian eta *Entzulearen Telefonoa* Radio Euskadin izan dira 2002ko Iparragirre sariak jaso dituzten saioetako batzuk. *Goenkale* telesailak eta Euskadi Irratiko albistegiek EITBren 20 urteotako saiorik onenei emandako saria jaso dute.

### Goiena Telebistak ez du emitituko Gabonetako oporretan

Abenduaren 25ean, agur esango dio GOITBk 2002ko ikasturteari, eta urtarrilaren 7an bueltatuko gara. GOITB Debagoieneko herri guztietara hedatzea zen aurtengo helburuetako bat: Bergarara eta Elgetara heltzea lortu dugu. Hala, gure eskuetan dagoena egingo dugu datorren urtean GOITB gainerako herrietara ere hel dadin.

## GABONETAKOPROGRAMABEREZIAK

# Goiena Telebistak jarraipen berezia egingo die Galiziara doazen ibarreko boluntarioei

HIRU LAGUNEKO TALDEA JOANGO DA CARNOTARA, ETA GOITB, ARRASATE IRRATIA, 'SUSTATU' ETA GOIENKARIA-RAKO ERREPORTAJEAK EGINGO DITU

OXEL EROSTARBE

Eguerdian abiatu dira Galizia aldera HUHEZIk antolatutako bidaian izena eman duten 212 boluntarioak. Eta Goienako medioek jarraipen berezia egingo diete Galiziara doazen ibarreko boluntariori: bi kazetari, Xabi Urzelai eta Gorka Etxabe, eta teknikari bat, Andoni Goiti, joango dira ibarreko boluntarioen bizipenak jasotzera.

Debagoienetik doazen boluntarioak Coruñako Carnota herrira joango dira, Lirara, konkretuki. Euren egitekoa hango hondartza garbitzea izango da. Eta lo hango kiroldegian egingo dute.

**ERREPORTAJE BEREZIAK**

Debagoiendarrei jarraipen berezia egiteaz gain, hondamendiaren ostean Galizian bizi duten egoera jasoko dute Goienako kazetariek. Domekan, abenduak 22, zuzeneko konexioak egingo dituzte Arrasate Irratian. Abenduaren 23an, Galizian bizi duten egoeraren gaineko erreportaje zabala irakurtzeko aukera izango da *Sustatu.com*-n. GOIENKARIAk ere jarraipen berezia egingo die Debagoienetik joandako boluntarioei: datorren astean, boluntarioek bizitakoekin erreportajea irakurtzeko aukera izango dugu. Urtarrilaren 8an, ordubeteko saio berezia egingo du GOITBk, Galizian grabatutako irudiekin.



AITOR URIZAR

**Xabi Urzelai, Andoni Goiti eta Gorka Etxabe, Galiziara doazen Goienako langileak.**

# Santamasen gaineko saio berezia eskainiko du Goiena Telebistak astelehenean eta martitzenean

EGUN OSOAN IBILIKO DIRA LANEAN GOITB-KO KAMERALARI ETA KAZETARIAK, FERIAREN GAINEKO ZEHAZTASUN GUZTIAK JASOTZEKO

JULEN IRIONDO

Bihar, zapatua, da Santo Tomas Eguna, eta horrek jaia esan gura du Arrasaten. Arrasatearrek, baina, biharamunerako uzten dituzte ekitaldirik gehienak. Arrasaten domekan ospatuko dituzte Santamasak. Eta, ohi duen legez, Goiena Telebistak ere festaren usainean pasatuko du asteburua. Teknikari eta kazetari, lantalde zabala ibiliko da lanean, Santamasetan gertatzen den guztiaren berri emateko. Mikel Aranburu, Goiatz Arana, Julen Iriondo eta Maider Osa Arrasateko kaleetan, hara eta hona, ibiliko dira egun osoan. Izan ere, izango da zer ikusi Santamasetan, eta Arrasatera etortzerik ez duzuenondako, festaren berri luze eta zabal emango du GOITBk.

Domeka goizean, hainbat erakusketa eta lehiaketa izango dira Arrasaten: barazkiena, gaztena, ganaduena, eta abarrena. Eta, zelan ez, taloa eta sagardoa dastatzeko aukera ere izango da, Santamasetako ferian.

Zaldibarren aizkolari eta harri-jasotzaileak lanean ikusi, eta behin gosea eginda, bazkaritarako garaia. Uarkape pilotalekuan herri bazkaria izango da. Ondoren, umeendako jolasak.

Bestalde, trikitilari, txaranga, ttuntturro, eta abarrekin musikarik eta dantzarik ere ez da falta izango asteburu osoan Arrasaten, ezta Santamasetako txerririk ere.

Ekitaldi horien guztien gainekoak astelehenean eta martitzenean izango duzue ikusteko aukera, Goiena Telebistan. Santamasen gaineko saio berezia bi egunotan pantailaratuko du GOITBk, hiru ordu desberdinetan: 14:00etan, 20:00etan eta 22:00etan, hain justu ere.

Hortaz, badakizue, Santamasak bertatik bertara gozatzeko aukerarik ez baduzue, Goiena Telebistan duzue Arrasateko festan gertatutako guztiaren berri jasotzeko aukera. Egon adi!



ANDER GILLENEA

**Santamasak Goiena Telebistan.**

## KAMERAAURREAN



*"Gutxiago saldu dugu; euroarekin, jendea despistatuta dabil, edo ez dakit. 34.035 zenbakia saldu dugu gehien Arrasaten eta Bartzelonan."*

**Pili Abarrategi** / Loteria saltzailea
"BERRIAK" (2002-12-17)



*"Igerilekua egitekotan, estalia izan behar da, eta berau egiteko behar den dirua asko da. Epe motzean, behintzat, ez dago aukerarik."*

**Iñaki Nafarrate** / Aramaioko alkatea
"HERRILAN" (2002-12-17)

## TELEBEGI/ Unai Loidi

### *Azkena*

**Zer programatu behar ote du T5ek datorren asteko domeka bazkalosterako? Beste kateetako moduko pelikularen bat? Beste kateetan bezalako telemaratoiren bat igual? Nominazioak egiten dituzten beste lehiaketaren bat? Urte amaierako informatibo berezia? Badakit izan dela albiste okerragorik urte honetan, baina telebistan egon litekeen berririk txarrenetakoa *Caiga Quien Caiga* pantailatik kentzea da. Batez ere, beste kanaletan antzeko imitatzailerik ez daukan programa bakarra delako. Domeka honetakoa izango da azkena.**

**Baina albiste txarrek batzuetan alde ona izaten dute, eta honek ere badu berea. Euren paraderoaren berri jakin zutenetik, aspaldiko programarik onenak egin dituzte Wyoming eta mutilek, galtzekorik ezer ez nonbait eta. Ondo asmatu dute egoerari zukua ateratzen, eta euren kaleratzearen kontura barre egiten. Domekakoa da azkena, eta seguru bideoan grabatzeko modukoa izango dena.**


Benetakoa dena bakarra dago
Eta zuk, zein erosten duzu?
Okela...
EUSKAL OKELA
CARNE DE VACUNO DEL PAIS VASCO
...edo Euskal Okela?
EUSKO LABEL
KALITATEA
DUEN OKELA BAKARRA
KALITATEZKOENA DELA ADIERAZTEN DUEN ZIGILUA
Zure harategian etiketa hau eska ezazu.
Benetakoa dela bermatzen dizu.

Goienkaria©
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA
Argitaratzailea: Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea z/g • 20500 Arrasate
Egoitza nagusia: BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Ordezkaritzak: Arrasate 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: arrasatepress@goiena.com
Aretxabaleta 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: aretxagazeta@goiena.com
Publizitatea: Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea z/g • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: publi@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 21.500 ale.
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
EGUBAKOITZA, 2002ko abenduaren 20a

*Atzeskua*

OXEL EROSTARBE

# Iñigo Aizpurua/'Basetxea' saioko finalista

**Bukatu da *Basetxea*. Hiru finalistetatik, zuk jaso zenuen boto gutxien.**

Mentalizatuta joan nintzen. Bi aukera zeuden, eta galtzea egokitu zait. Hala ere, pozten naiz Edurnek irabazi izana. *Basetxea*-tik kanpo harekin egon naiz gehien. Astean, momentu gogorrak bizi izan ditu, amona hil zaio-eta. Jokinek irabaztea baino nahiago nuen hark irabaztea.

**Hirugarren postuarekin konformatu behar…**

Galtzeko eta irabazteko aukera nuen. Emaitza onartu, eta kito. *Basetxea*-n bizitakoekin geratzea da onena. Nik baino gaizkiago hartu zuen Jokinek.

***Basetxea* jende askok jarraitu du. Finalista baten edo bestearen alde 10.000 lagunek bozkatzea ez da gutxi.**

ETBn gehien ikusi den programa izan da. Pena da gertatutakoaren %10 ere eman ez izana. Eman diren irudiekin saioak ez du nirekin justiziarik egin. Nik badakit zelakoa naizen, baita nire ingurukoek ere.

**Irudi guztiak ez dituzte eman. Agertu ez den zerbait egongo da kontatzeko.**

Niri gaiztoaren papera ezarri didate, eta Bertaren bikotearena ere bai. Eurek nahi dituzten irudiak agertu dira. Beste kontu batzuk ere ez dira agertu; denak ezin dira esan, ordea. Martin, adibidez, sekulako mozkorrarekin agertu zen behin; esan zituen zenbait gauzak min egin ziguten askori. Martinek gaizki bukatu du.

***Basetxea*-n emandako 30 egunek zer eman dizute?**

Parte-hartzaile guztiak lagun egin ditut. Hasieran, lagunekin oporretan geundela ematen zuen. Jokoak aurrera egin duen neurrian, bizitza erreala izango balitz bezala bizi izan dugu. Jokinekin, adibidez, eztabaida izan nuen finalaren atarian. Jokin mutil jatorra da, momentu asko eman ditut harekin, eta gehienak onak izan dira. Horiekin geratzen naiz.

**Saioa amaituta, Bertaren eta bion artekoa zelan dagoen jakin barik geratu gara. Haren mutila ezagutu zenuen?**

Bai, aurreko baten ikusi nuen. Eskua eman, eta aurrera. Berta eta biok lagunak gara. Gertatutakoaren gainean norberak nahi duena pentsa dezala.

**Zelan hartu duzu parte *Basetxea*-n?**

Itziarko lagun batekin joan nintzen. Hark ezin zuen hilabete osoa bertan eman, eta nik eman nuen izena. Jendeak esaten du ospea lortzeko sartu ginela. Esperientzia berria bizi nahi genuen, eta aberasgarria izan da. *Casting* batera joan, eta konturatu orduko *Basetxea* barruan nengoen. *Casting*-a eguazten baten izan zen, eta zapatuan hasi zen lehiaketa. Jendea parte hartzera animatu nahi nuke.



**"Ospea lortzeko sartu ginela diote; esperientzia berria bizi nahi genuen, eta aberasgarria izan da"**

**"Niri gaiztoaren papera ezarri didate, baita Bertaren bikotearena ere"**

**"Galtzeko eta irabazteko aukera nuen; *Basetxea*-n bizitakoekin geratzen naiz"**

► *Itziar / 21 urte / Angiozarko Ortzi jatetxekoa*

## PIPERRAUTSA

### *Nunca máis?*

Galiziako katastrofea potoloegia da zutabe honetan kabitzeko. Baina badira bi puntu ezin-besteko, galiziarrek amorruz jaurti duten "Nunca máis!" oihua egia izango bada.

Bat. Agintariek ordaindu egin behar dute. Agintetik kendu egin behar dira hurrengo hauteskundeetan, ikas dezaten. Aldi berean, ez da ikasgai txarra izango ondorengo agintarientzat. Txarto gobernatzen duena, kanpora!

Bi. Europan sortu den giroa aprobetxatu egin behar da araudi zorrotza ezartzeko. Izan ere, nola da posible auto koskor batek sekulako derrigortasunak izatea eta itzelezko petroliontziak apenas?

Errepasa dezagun. Autoak trafiko kodea bete behar du, eta zaindari mordoak behar-tuko du horretara. Bete ezean, zigorra irits daiteke gidabaimena kentzeraino. Ezaguna da autoa norena den, eta berea da legezko erantzukizuna. Asegurua derrigorrezkoa da, eta honek estaltzen ditu kalte-ordainak. Urtean behin ikuskatzen da autoaren egoera gune ofizialetan, eta ondo ez badago, ibiltzeko baimena ere gal lezake.

Petroliontziak ez dira inorenak, ez diote inori obeditzen, ez dute kontrolik gainditzen, eta ez dute kalterik ordaintzen. Kapitalismo basatiak ahalbidetu du Prestige-ren triskantza.

Gizarteak lortu behar luke autoek duten besteko araudia ezartzea, gutxienez, ontzientzat. Ez dadin gerta beste behin beste inon. Berriro ez. Nunca máis!

MIKEL IRIZAR

RENAULT

EURO NCAP ★★★★★

Renault Megane berria, Renault VelSatis eta Renault Laguna, **"5 estrellas Euro NCAP"** klub esklusiboan. Bakoitza bere segmentuan "auto seguruena" da.

**Renault-ek guztiendako segurtasun-printzipioa du oinarri**




RENAULT MEGANE. 2003an URTEKO AUTOA

MECA
ARRASATE • BERGARA